

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA
ETA GASTEIZKO ELIZBARRUTIAK**

FAMILIA AURKITZEA GAUR EGUN

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA
ETA GASTEIZKO GOTZAINEN IDAZKIA**

1995, PIZTUERAKO PAZKOA

AURKIBIDEA

SARRERA (1. z.)

- Familiaren etengabeko gaurkotasuna (2. z.)
- Familia eta gizarte-aldaketa (3. z.)
- Pastoral Idazkiaren egitura (4. z.)

I.- FAMILIA ETA KULTUR ALDAKETAK (5. z.)

Erreferentzia soziologiko adierazgarriak

- Alderdi subjektiboak eta erakundea (6-7. z.)
- Ezkontza eta familia, arazo pribatu (8-10. z.)
- Bizi sortzea, ugalkortasuna eta kultur aldaketa (11. z.)
- Bere gunera urritutako familia “nuklearra” (12. z.)
- Familia barruko harremanen aldaketa (13. z.)
- Familiaren “rol” edo eginkizunak (14. z.)
- Famili bizitzarekiko lotura eta sakabanatzea (15. z.)

Aldaketa honetan zerikusia duten arrazoiak (16. z.)

- Berehalako atsegina bilatzea (17-18. z.)
- Gizabanakoa, bizitzaren neurri (19-20. z.)
- Emakumea lanbidean sartzea (21. z.)
- Tolerantziatik edozer ontzat ematera (22. z.)
- Komunikabideen eragina (23. z.)
- Ekonomiaren eragina eta kontsumokeria famili bizitzan (24. z.)
- Familia, askatasun-leku (25. z.)
- Erlijiotasuna eta balore etikoak famili bizitzan (26. z.)

Familiak aldaketa sozialaren aurrean

- Famili bizitzaren esperientziara hurbiltzea (27-29. z.)
- Solidaritarik ezaren arriskua (30. z.)

- Famili proiektua poliki-poliki gauzatzen joatea (31. z.)
- Komunikazio eta elkarrizketa bidez (32. z.)
- “Etsipenezko” isiltasunaren “bakea” (33. z.)
- Arrazoi gabeko errudun-sentipena (34. z.)
- Maitasuna, famili proiektuaren zerbitzuan (35. z.)

II.- FAMILIARI BURUZKO KRISTAU IKUSPEGIA

Ezkontza eta familiari buruzko kristau-ikuspegia, gizakiaren eta gizartearen zerbitzura

- Familiaren giza duintasuna (36. z.)
- Izaeraren irakurketa fedearen argira (37. z.)
- Elizaren hitzaren esanahia familiari buruz (38. z.)

Familia, maitasun-elkarte

- Maitasunezko hautapena askatasunean eta berdintasunean (39. z.)
- Maitasuna eta sexualitatea (40. z.)
- Betiko iraupenaren eta osotasunaren eskakizunez (41. z.)
- Ezkontza eta familia (42. z.)
- Kristau-ezkontza, sakramentu (43-44. z.)
- Maitasuna, etengabeko helburu (45. z.)
- Ezkonduen arteko maitasunaren indarra eta ahultasuna (46. z.)

Biziaren zerbitzura

- Ezkonduen maitasuna, eta ugalkortasuna (47-48. z.)
- Berekoikeria, eta maitasunaren hondamena (49-50. z.)
- Bizia ematearen eginkizun soziala (51-52. z.)
- Seme-alabek familiari ematen dioten aberastasuna (53-54. z.)

Seme-alaben heziketa, espiritu-alorreko sorkuntza berria

- Haurren laguntza beharra eta familiaren maitasuna (55-56. z.)
- Heziketa, erro-errotik familiari dagokion eginkizuna (57. z.)
- Utziezina den eginkizuna (58. z.)
- Beren buruaren jabe eta aske izateko hezi (59. z.)
- Elkarmaitasuna, komunikazioaren oinarri une zailetan (60. z.)
- Familia eta bakegintza (61. z.)

Familia eta gizartea

- Familia, ondasun publiko (62-64. z.)
- Familiari buruzko politika egokia (65. z.)
- Familien protagonismoa alor politiko-sozialean (66. z.)
- Guraso-elkarteen iharduna (67. z.)

Norbere kontzientziarekiko leialtasuna eta famili egitasmo kristaua

- Elizaren irakaspena eta norberaren kontzientzia (68. z.)
- Norberaren iritzienganako leialtasuna (69. z.)

III.- KRISTAU FAMILIA EBANJELIZATZEAREN ZERBITZUAN (70. z.)

Erlijiozko ezkontza eta kristau-familia

- Kristau-ekontzaren aparteko izaera (71. z.)
- Ezkontza eta familiari buruzko kristau-egitasmoa (72. z.)

Kristau-familiaren jainkozko eta eliz alderdia

- Bizitzaren osotasunaren dira kristau ezkontza eta familia (73. z.)
- Kristau-familiaren ebanjelizatze-eginkizuna (74-75. z.)

Elkarteko, santu eta santutzaile den erakundea

- Espirituaz eta sakramentuez santu egina (76-77. z.)
- Giza biziaren eta pertsonaren alderdi “sakratua” (78. z.)
- Giza familia handiaren proiektua (79. z.)
- Maitasunean eraikitako elkarte (80. z.)
- Senar-emazteen eta guraso eta seme-alaben arteko harremanetan (81. z.)
- Bat egina eta irekia den elkarte (82. z.)

Kristau-familia, fedea hotsegitearen eta fede-heziketaren zerbitzuan

- Familia, “fedea aitortzeko” leku (83. z.)
- Lehenengo “eskola” fede-hezierarako (84. z.)
- Arrazoirik gabeko atzerapenik gabe (85. z.)
- Elizaren ebanjelizatze-eginkizunean parte hartuz (86. z.)
- Bizitzan oretzen den fedea (87. z.)
- Jarraipena duen prozesu batean (88. z.)
- Ebanjelizatzailea eta etengabe ebanjelizatua den fedea (89. z.)
- Famili bizitzaren bokazio-zentzua (90. z.)

Familia kristaua, otoitz egiten duen elkarte (91. z.)

- Elkarrekin otoitz egiten duten senar-emazte (92. z.)
- Baita seme-alabekin ere (93. z.)
- Bizitza kontuan izanik (94. z.)
- Fedean hezitzen duen otoitza (95. z.)
- Kristau-elkartearen liturgi otoitzean parte hartzea (96-98. z.)

Kristau-familia, gizartera zabalik dagoen maitasun-elkarte (99. z.)

- Gizadiaren gain maitasun eta konpromezu-begirada esnatzea (100. z.)
- Famili egitasmoa eta behartsuenganako maitasuna (101. z.)
- Familia eta konpromezi politiko-soziala (102. z.)
- Bakearen zerbitzuan (103. z.)
- Eliz zerbitzuaren konpromezua (104. z.)

IV.- FAMILIENTZAKO ZERBITZU PASTORALA (105. z.)

Familiaren egoerarekiko arreta, gure kristau-elkarteen pastoraltza ebanjelizatzailean (106. z.)

- Familia, ebanjelizatzeko esparru berezi (107. z.)
- Ezkontzari buruzko pastoraltza (108. z.)

Ezkontza aurreko pastoraltza

- Ezkontza aurreko prestakuntzaren beharra (109. z.)
- Prestakuntzaren edukia (110. z.)
- Bakoitzari harrera ongi eta arretaz egin (111. z.)
- Senar-emazteen lankidetzak (112. z.)

Ezkonduen jarraipen egitea (113. z.)

- Ezkonduen talde eta mugimenduak (114. z.)

Familian fedea bizi eta fedean hezi dezaten laguntza (115. z.)

- Nork bere fedea besteei eskualdatzea (116. z.)
- Gurasoen parrokiako katekesian parte hartzea (117. z.)
- Seme-alabak gurasoen "hezitzaile" (118. z.)
- Otoitza familian (119. z.)
- Kristau-elkartearen laguntza (120. z.)

Seme-alaben heziera osoaren erantzukizun elkar banatua

- Gurasoen eskubidea eta entzukizuna (121. z.)
- Gurasoak heziera-elkartean (122. z.)
- Guraso-eskolak (123. z.)

Familiarikiko solidaritza beraien arazo eta beharretan (124. z.)

- Sufritzen dauden familienganako hurbiltasuna (125. z.)
- Pertsona adintsuei eta alargunei laguntzea (126-127. z.)
- Ezkontza hautsi dutenen aurrean (128. z.)

Ezkontza eta famili pastoraltzako kideak (129. z.)

- Gotzain eta apaizak (130. z.)
- Senar-emazte kristauak (131. z.)
- Erlijioso-erlijiosak (132. z.)

Ezkontza eta famili pastoraltzaren barrutiak eta egiturak (133. z.)

- Elizbarrutia (134. z.)
- Mugimenduak (135. z.)
- Parrokia (136. z.)

AZKENA (137. z.)

SARRERA

1. Azken urteotako gure Pastoral Idazkietan, zenbait alditan, egin izan ditugu aipamenak familiari buruz. Horrek adierazten du, pertsonen bizitza alderdi askotatik ukitzen duen arazoa dela familiari dagokiona. Garbi dago, bai pertsonek bai gizarteak zerikusi handia dutela, familiak duen izateko eta bizitzeko moduarekin.

Familiaren etengabeko gaurkotasuna

2. Orain familiari dagokion arazo garrantzitsu honi begiratu nahi diogu zuzenean, zuei Elizaren ikuspegia eskaintzeko familiari eta ezkontzari buruz, ezkontza baitu oinarri familiak eta hor aurkitzen du bere sendotasuna.

Pertsona bere askatasun eta osotasunera eramaten duen Jesukristoren salbamenak ere badu bere zerikusia ezkontza eta familiarekin. Naturari dagoki-onak eta naturaz gainekoak bat egiten dute gizakiarengan izaera bat berean. Eliza sinesturik dago, pertsonaren eta gizartearen salbamena lotu-loturik dagoela senar-emazteen eta famili elkartearen sendotasunarekin.

Familia eta gizarte-aldaketa

3. Gure garaiotako gizarte-aldaketa sakonek eragin handia izan dute familiarengan. Kristauak aurpegi eman behar dio aldaketaren arazoari. Hor tartean sarturik egon beharra dauka, baina uko egin gabe, fedearen eta bizitzari buruzko kristau-ikuspegiaren ondorio diren giza balore iraunkorrei zor zaien leialtasunari; eta historiari bizkarra emanda ere bizi nahi izan gabe.

Ebanjelioaren mezuarenganako leialtasunak ez du eragozpen izan behar aldaketa historikoetara egokitzeko; beharrezkoa baita hori, Ebanjelioko baloreek arnasberritu, garbitu eta eragin dezaten garai eta kultura bakoitzeko gizakiaren egiazko erakuntza, eta zehazki familiari dagokion erakuntza.

Pastoral Idazkiaren egitura

4. Gure gogoeta, lehenengo eta behin, gure garaiotako aldaketa kulturalaren ukitua sakonagotik nabari duten famili bizitzaren alderdietara hurbiltze bat izango da. Familiaren aldaketan bereziki eragina duten zergatiak zehazten saiatuko gara, eta aldaketa horiek famili harremanetan dituzten ondorioak azaltzen (I. atala).

Ezkontza eta familiaren kristau-ikuspegia eskainiko dugu, bigarren, argi-bide izan dadin, aldaketen erdian, giza bizitzako errealitate hauen balore sakonak eta betikoak ulertzeko. Gure asmoa zera da: Jainkoak giza bizitzako izaeran bertan jarri dituelako, kristauok aurkitzen ditugun ezkontza eta familiari buruzko ezaugarriak eta eskakizunak jasotzen laguntzea (II. atala).

Ondoren, kristau-familiaren esanahi berezia aurkeztuko dizuegu: ebanjelizatzearen zerbitzura lan berezia egin duela, alegia, familiak; eta ez bere baitako kideen ebanjelizatzeari buruz bakarrik, baita gizartearen erdian egin behar duen testigantza eta eraberritze-lana ere (III. atala).

Azkenik, kristau-elkarteok ezkontza eta famili pastoraltza-alorrean bereziki sustatu behar ditugun zerbitzu eta laguntzak aipatzen ditugu (IV. atala).

I.- FAMILIA ETA KULTUR ALDAKETAK

5. Ezkontza eta familia erakunde oinarrizkoak dira herrien kultur gintzan. Famili bizitza ulertu eta bizitzeko erak gizakiaren sustrai sakonenak ukitzen ditu, baita portaera pertsonal eta sozialen sustraiak ere. Horrexegatik, kultur aldaketek eragin handia daukate familiaren gain. Azken urteotan gertatu den kultur aldaketak gure familiei ere eragin die. Badira familiaren krisiaz hitz egiten dutenak, baita famili erakundearen desagiteaz hitz egiten dutenak ere.

Familiari buruz, eta beronen sorreran dagoen ezkontzari buruz, egin ditza-kegun gogoetek ezin dezakete ahaztuta utzi aldaketa sozial hori. Horregatik, Pastoral Idazki honen helburua lortzeko adierazgarriak izan daitezkeen erreferentzia soziologikoetara hurbiltzen saiatu nahi dugu, labur bada ere.

Erreferentzia soziologiko adierazgarriak

• Alderdi subjektiboak eta erakundea

6. Hasteko, nabarmen dezagun, ezkontza eta familiaren alderdi subjektibo eta pertsonalei lehentasun eta balio gehiago ematen zaiela, osagai objektibo eta juridiko-instituzionalki baino.

Esaten da, ezkontza eta familia, errealitate horiek bizi dituztenek egiten dituztela, eta ez horiek instituzionalki osatzeko ematen diren arau juridiko eta etikoek. Gero eta gutxiago sinesten da, pertsonen borondate eta sentipenez kanpoko osagaiez eratu eta eutsitako ezkontza eta familiaren balioan. Pertsona bakoitzaren barne-sentimenduei erantzuten ez dieten kanpoko arau eta agindu etikoetara egokitzea, azalckeria eta gezur soziala bezala ikusten da.

7. Ez da harrizkekoa, istilu honek azkenean etena ekartzea berekin. Ulertzea bera ere zaila gertatzen da, ezkontza eta familia eratzeko arau edo agindurik izan daitekeenik, norberaren subjektibotasunetik eta gauzak ikusteko era berezitik ulertu eta bizitako maitasunetik aparte.

• Ezkontza eta familia, arazo pribatu

8. Ikuspegi honetatik, ezinbestekoa da ezkontza eta familia arazo erabat pribatua dela pentsatzeko joera. Sexualitatea erabiltzeko eskubideak eta norbere gorputzaren jabe oso izateak, eta, horiekin batera, bakoitzak bere afektibitateaz nahi duena egiteko izan behar omen duen gaitasunak, giza bizitzako alor honen ikuspegi pribatua azpimarratzen dute, oraindik orain alor horrek izan duen sozial ikuspegiaren kaltetan.

9. Aldaketa honen agerpen argi dira, inolako aitorten edo formalizazio agerikorik egin ez duten bikoteak, ez aitorten zibilik ez erlijiosorik. Bikote horiek, lege onartuak diren beste ezkontzei gizarateak aitortu izan dizkien eskubide berberak eskatzen dituzte berentzat eta sor ditzaketan seme-alabentzat.

10. Pertsona arteko harremanen gorabeheren gainera dagoen ezkontza-elkartasunak nozi tu duen erorialdia ez da harritzekoa. Era horretan zabaldu da, gure artean ere, kultura «dibortziozalea», ezkon loturari buruz lehen sakon sustraitua zegoen askaezintasunaren kontra. Izan ere, dibortzioari eman zaion lege-aitorpenak aldaketa handia sortu du, ezkontzako harremanak ulertu eta bizitzeko eran.

Ezkontzaren sendotasun ezak familien sendotasunik eza ekarri du berekin, neurri handi batean. Bikote baten seme-alabak, oraindik umeak direlarik, familia bat baino gehiagotako kide izatea, ondorio pertsonal eta sozial larriak dakartzan gertaera da, honetatik sor daitezkeen arazoei eman beharreko lege-konponbideak alde batera utzita.

- ***Bizia sortzea, ugalkortasuna eta kultur aldaketa***

11. Bizi berrien sortzea eta ezkontzen ugalkortasuna garrantzi handiko osagaiak izan dira, gure kultur giroan, familia osatzekoan. Eta hori bi alderditatik begiratuta: gizartean onartua zegoelako ezkontza zela leku egoki bakarra giza bizitza berriak sortzeko, eta, beste aldetik, haurra baliozko eta estimagarri ikusten zelako familiarentzat eta baita gizartearentzat ere.

Gaur pertsona berriak sor daitezke, gizarteak hori ongi ala gaizki hartu, ezkontzaz kanpo eta bikotea elkarrekin bizi gabe. «Guraso» homosexualen familien bidezkoasuna planteatzeraino iritsi gara. Gainera, naturazko bizi-sortze berezkoari, aurrez pentsaturiko bizi-sortze kalkulatu etorri zaio; horrek jaiotzen murrizte handia ekarri du berekin, eta hau gizartearentzat ondorio larriak dituen gertaera da.

- ***Bere gunera urritutako familia «nuklearra»***

12. Bada beste errealitate bat kontuan hartzea komeni dena, askorentzat oharkabean geratzen bada ere, bere ondorioak baititu familia eta famili bizitza eratzekoan. Belaunaldi bat baino gehiagoz osaturiko familietatik, bere gunera urritutako familia «nuklearrera» etorri gara, guraso eta seme-alaba hutsez osaturiko familiara. Ematen du aiton-amonek ez daukatela lekurik egungo familietan, eta, horietan bizi direnean, badirudi «enbarazu» egiten dutela.

Datu honek, lehen aipatu dugun jaiotze-murrizteari erantsita, familia txiki eta urritura ekarri gaitu, kideen zenbakiari dagokionez; aparte uzten dugu, noski, horri buruz egin beharreko balorazioa.

- ***Familia barruko harremanen aldaketa***

13. Neurri handi batean, aldatu egin da elkarren arteko harremanak ulertzeko era, bai bikoteari dagokionez, bai guraso eta seme-alabei dagokienez. Emakumeak kultur eta lan-alorrean egin duen gorakadak berdintasun-jite nabarmena ezarri du senar-emazteen artean eta etxe barruko eginkizunetan. Bestalde, gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazio-giroa ere aldatu egin da: leku gutxiago du orain agintek, eta gehiago elkarriketak.

Azken urteotan baretu egin da belaunaldien arteko istilua; seguru asko, gurasoek etsi dutelako, seme-alabei portaera-arau jakinak ezarri nahian. Adostasunik eza hor dago oraindik, sexu eta politika alorretan batik bat.

- ***Familiaren «rol» edo eginkizunak***

14. Garrantzi berezia dauka, nahi den tokitik begiratuta ere, familian gertatu den aldaketak, berak gizartean bete beharreko «rol» edo eginkizunei dagokienez; orain arte familiak berak bete beharrekotzat jotzen ziren eginkizunei dagokienez. Aldaketak heziketa-eginkizunari eragin dio bereziki, heziketa pertsonaren osaketa eta sozializazioa burutzeko eragin eta laguntasun bezala ulertuz.

Baina ez da horretan gelditzen, familiak gizartean bete beharreko eginkizun eta jokoaren aldaketa. Batzuk ikusten dute, eta ez du ematen oker dabiltzanik, arrazoi sozio-politiko eta kulturalak medio direla, orokorrean nabarmen gutxitu dela familiaren eginkizuna, kanpoko eragin soziala etxe barruraino sartu delako eta lehen familien barru-barrukoak eta eskukoak ziren zenbait alor, orain kanpoko eragin sozialen esku utziak izan direlako.

- ***Famili bizitzarekiko lotura eta sakabanatzea***

15. Beste gertaera bat ere jaso nahi dugu, oraintxe esan dugunaren kontrakoa dela ematen badu ere. Gertaera nahiko berria da gure artean. Honela zehaztu genezake: seme-alaben gurasoekiko eta familiekiko lotura edo dependentzia hazi egin dela. Esan ere esan da, familia dela gaur egun egiazko «Segurantzaz Soziala» seme-alabentzat. Askatasun ekonomikoa eta afektiboa bera ere gero eta gehiago atzeratzen ari da; gaurko gaztediak duen askatasun eta independentzi amets berezkoak eraginik espero litekeen baino gehiago.

Honen ondoan ikus daiteke, familia barruko komunikazioa moteldu egin dela, oro har; etxean telebista sartu delako, batez ere, eta famili kideak sakabanatuta daudelako lana, ikasketak edo dibertsioa direla eta.

Aldaketa honetan zerikusia duten arrazoiak

16. Familiari eta famili bizitzari dagokien aldaketa sozialak ez gaitu ardurarik gabe uzten. Ikusten dugu asko eta garrantzizkoak direla aldaketa horretan jokoan dauden giza baloreak. Arrazoi guztiarekin galdetzen dugu, zer den gertatzen ari dena eta zeintzuk diren horren arrazoiak. Gainera, aldaketa-bide honen lehen balorazioa egin nahi dugu, ez baitugu ikusle hutsak izan nahi eta ez baitugu aldaketa sortzen duten mekanismoen aurrean besoak tolestuta gelditu nahi.

Famili aldaketa ulertu nahi baldin badugu, kultur alorreko aldaketa zabalago eta osoago baten barruan kokatu behar dugu. Familia ez baita beregan itxita dagoen errealitatea, bera bizi den kultur giroan gertatzen denetik aparte dagoena.

- ***Berehalako atsegina bilatzea***

17. Balio eta arau absolutuen eta, beraz, balio eta arau tinko eta sendoen deskonfiantza erakusten duen kulturaren, garrantzi berezia hartzen du berehalakoari ematen zaion balioak, momentuan momentukoari ematen zaion balioak, eta beronek sor dezakeen atsegina eta erosotasunak. Bizitzea da garrantzizkoa, eta, diotenez, bizitza berehalakoaren eta konkretuaren emaitza da. Printzipio eta arau orokorrei konfiantza gutxiago zor zaie, momentuko eskaintza konkretuei baino. Etorkizunari begira egindako proiektuek ez dote behar adina konfiantza sortzen, konpromezu sendo eta betirakoak eskatzeko. Momentukoaren igarokortasunetik bizitzea da kontua, eta igarokortasunak irauten duen bitartean.

18. Konpromezurik handienak eskatzeko gai diren errealitateek ere, betikotasunaren eskakizuna eta promesa daramatenek, alegia, hala nola, maitasunak, emandako hitzarekiko leialtasunak eta antzekoek, ezin ditzakete konpromezu iraunkor eta betirakoak sortu, dena aldatzen den mundu honetan. «Horiek garai bateko kontuak dira; orain beste era batera dira gauzak», hori da gertatzen denari ematen zaion argibide erraz eta babeslea. Aldatzea nahiko arrazoia da aldatzeko; edo, hobe, aldaketak sortzen duen erosotasuna, zoriona edo berehalako atsegina nahiko arrazoi dira, besterik gabe, aldatzeko.

- ***Gizabanakoa, bizitzaren neurri***

19. Kultur giro honetan, gizabanakoak, hau da, indibidualtasunak sekulako lehentasuna hartzen du pertsonaren bizitzan; beraren sozial alderdia eta horretatik sor daitezkeen loturak bigarren lerrora pasatzen dira, esanahi gutxiko lerrora. Norberaren kontzientziak, askatasunak, bakarkako edo elkarbanatutako atseginak, gauza guztien neurri izatera jotzen dute. Modu oso berezian ulertzen da, gizakia bizitzaren eta portaeren irizpide bezala ikustea. Nortasunaren irakurketa berria norberatasuna da, indibidualitatea.

Hori horrela izanik, era kuriosean ulertzen da pertsona guztien berdintasuna; ez da kontuan hartzen adina, sexua, eginkizun soziala edo gizabanako guztien oinarritzko berdintasun haustezina zehaztu dezakeen beste gogoetarik.

20. Pertsonari ikuspegi indibidualista honetatik begiratzeak sortzen duen gizakiaren pribatizazioak itxuragaldurik uzten ditu sakon-sakonak diren giza errealitateak, hala nola: sexualitatea, sorkuntza, ezkontzako bizikidetzeta eta famili erakundearen oinarrian dauden beste batzuk. Gizabanakoa eraikitzen da norberaren jaun, bere sexuaren eta gorputzaren jabe. Norberaren edo ondokoaren bizitzarekiko errespetua bera ere ez da muga baliozkoa ikusten, norberaren askatasuna bideratzekoan.

- ***Emakumea lanbidean sartzea***

21. Pertsona ororen eta bakoitzaren duintasunari zor zaion aitortpena, egungo kulturaren lorpen ukalezina da. «Feminismoaren» gertaerak aparteko aipamena egitea merezi du hemen, ezkontza eta familia ulertzeko eran dituen ondorioengatik. Gizonak eta emakumeak elkarrekin famili proiektua burutu nahi dutenean, ohikoak ziren gizonaren eta emakumearen «rol» edo eginkizunak aldatu egin dira.

Emakumea lanbidean sartu izanak eta, sarri samar, gizonaren orde etxe-koei eusteko diru-sarrerak emakumeak ziurtatzeak, zerikusi nabarmena izan dute gizonaren eta emakumearen berdintasunean. Lehen ohikoak ziren portaera batzuk aldatzen doaz, gaur egun diskriminazio zuzengabekotzat jotzen baitira. Ez da oharkabean gelditzen, emakumeak gizarte-alorrean duen sarrera eta partehartze gero eta handiagoa.

Gaur ez da inolaz ere onartzen, etxeak izan behar duenik emakumearen leku berezkoa, emazte eta ama denez, eta bizitza profesional eta agerikoa gizonari utzi behar zaionik, senarra eta aita denez.

- ***Tolerantziatik edozer ontzat ematera***

22. Norberaren askatasuna gizarte-bizitzan sendotzeak tolerantzi giroa ekarri du berekin, eta oso erraz iristen da axolarik ez izatera ere portaeren balorazio etikoa egitekoan. Ongiaren eta gaitzaren arteko bereizketa kontzientzien barneketasun gordearen esku uzten da. Edozeri amets ematen dion biziera sortzen da horretatik.

Esaten denez, aginteak herriko gehiengoak pentsatzen duena jaso eta bizikidetzarako arau bihurtu besterik ez du egin behar. Era horretan, galdu egiten da erabat ezkontza eta familiari buruzko ikuspegi gizalegezkoak sortzen den indar eta balio arauemailea, hain zuzen portaera pertsonal, familiako eta gizartekoak gidatu eta sustatzeko gai den indarra.

Horrekin batera bada beste arrisku bat ere: famili bizitza gizarte demokratikoaren molde eta erara eraikitzeak, familiaren berezkitasuna behar adina kontuan hartu gabe, eta familiak dituen eginkizun bereziak eta nortasuna ere kontuan hartu gabe.

- ***Komunikabideen eragina***

23. Gaurko kulturak nabarmentzen duen ezaugarrietako bat komunikabideen garrantzi ikusgarria da, ideiak, balio-iritziak, sentimenduen moldeaketa eta, azken batean, pertsonen eta taldeen portaera eratzekoan. Komunikabideek atergabe entzunarazten dituzte portaerarako mezu, irudi eta ereduak.

Familia ez da gelditzen eragin horretatik aparte. Komunikabideen eraso nozitzen du familia barruko bizitzak. Baita komunikabideek erakusten dituzten bizimoldeena ere. Komunikabideek etxeokoen bizi diren «arrotzak» dira; gehiago beharbada, nor bakoitzak duen gustuaren arabera etxera gonbidatzen dituen «ostatukideak». Arreta berezia jarri behar zaio telebistaren eraginari, bikote-harremanen irudi desitxuratua eskaintzen duelako, «tresna» huts bihurtzen diren harremanak, alegia, eta emakumearen duintasuna bereziki kaltetua uzten duelako.

Familiari buruzko gaurko kultura ezin uler daiteke komunikabide horiek gabe. Ezin izango litzateke ulertu, onerako edo txarrerako, familia bakoitzaren bizimodua ere. Komunikabideek sakon eragiten diote bizikidetzari eta beraren barne-loturari.

- ***Ekonomiaren eragina eta kontsumokeria famili bizitzan***

24. Hain korapilatsuak diren alderdi ekonomikoek ere eragin indartsua dute famili eredu eratzekoan, beraren balioak zehaztekoan, beraren funtzionamendua antolatzekean eta famili proiektua erabakitzekoan. Ziurtatu nahi diren diru-sarrerek, eguneroko beharrak konpontzeko edo lortu nahi den edo mantendu nahi den bizi-mailari eusteko beharrezko ikusten diren gastuek, eta hainbeste ezkonturi edo seme-alabari erasotzen dion lanezaren izurriteak, baldintzapean jartzen dituzte familien bizitzak, eta, neurri handi batean, erabakiorrak gertatzen dira.

Ekonomiarekin loturik daude, familiak murgilduta dauden kontsumo-giroa sortzen duten mekanismoak ere. Horretatik neurtzen dira zorionaren zenbatekoak. Ekonomiak erabakitzen ditu, familiaren «bizilekua» bezalako puntu garrantzitsuak, hau da, etxebizitzaren handi-txikia eta etxebizitza bat izateko aukera bera ere. Ekonomiak izendatzen ditu familikideen «rol» edo eginkizunak, baita familiek dituzten betebeharrak ere.

Familia, askatasun-leku

25. Ez litzateke zuzena izango, hala ere, familietan gertatzen den guztia, ona eta txarra, familiaz kanpoko arrazoiei eta pertsonen egozteak. Familikideak, gurasoak eta seme-alabak, dira izan atergabeko familigintzan egile eta eragile. Familia bakoitzak bere biziera egiten du, berak dituen amets, irizpide eta ahalbideen neurria.

Norberaren askatasuna bakarka eta elkartean bizitzeko lekua da familia. Gizartetik datozen eraginak, ugariak eta biziak baldin badira ere, eta handik sortzen zaizkigun baldintzak eta presioak, indartsuak izanda ere, esan behar dugu familia askatasun-gunea dugula, norberaren aukera pertsonalak eta elkartekoak bizitzeko.

Bizi-giroa edo gune sozio-kulturala bat bera izanik ere, famili bizitza era ezberdinetara bizi daiteke, eta hala bizi izaten da. Familiak era dezake bere bizi-proiektua. Familiak, gainera, baliozko plataforma osatzen du, berari eragiten dion gizarteari bere aldetik eragin ahal izateko, baita elkarte edo asoziazio bezala ere. Esan beharra dago, hala ere, famili asoziazioen egoera eta familien jokaera elkartua, oso eskasa eta indarrrik gabea dela gure artean. Eskasia horren ondorioak behar bezala neurtu beharko dira.

- ***Erlijotasuna eta balore etikoak famili bizitzan***

26. Bada, azkenik, beste gertaera bat familiaren eta famili bizieraren gain bere eragina izan duena; eta beharrezko dugu beronetaz konturatzea, berari buruz egin daitekeen balorazioa egin aurretik. Famili bizitzaren giroan erreferentzia erlijiosoak galtzeari buruz ari gara, eta horretatik sortzen den balore etikoen galerari buruz. Fedearen ahulketak eta fedegabezi giroak eragin handia daukate, gure iritzian, familiaren aldaketan.

Zehazki, Jainkoaren aginduek eta Elizaren irakaspen moralak denbora askoan eman diote oinarria ezkontzari eta famili bizitzari gure kultura barruan.

Hor aurkitu izan du gure gizarteak ezkontza eta famili bizitzaren portaerak be-reizi eta berorien balorazioa egiteko erreferentzia objektiboa. Erliziozko balo-reen indarrari eta gaurkotasunari buruzko ikuspegi-aldaketa ez da izan eraginik gabekoa famili erakundearentzat eta beraren inguruan gertatu den aldakuntza- rentzat.

Familiak aldaketa sozialaren aurrean

• *Famili bizitzaren esperientziara hurbiltzea*

27. Aldaketa sozio-kulturalek eta baldintza sozio-ekonomikoez badute beren eragina famili erakundearen izaera historikoan eta berak betetzen dituen zere- ginetan. Pertsonak famili esperientzia bizi eta sentitu ohi duten eran ere badute beren eragina. Bidezkoa da, beraz, galdetzea, nola bizi eta sentitzen diren fami- liak bizi diren bizi-giroan, gehienbat beren borondateak sortu ez duen bizi-giro horretan. Kristau-baloreetan argitutako famili proiektua bizi nahi duten fami- liek ere nozitzen dute bizi-giro orokorraren eragina.

Ez da gure asmoa, hemen familia guztien nolakotasunak azaltzea. Familia bakoitzak bere nortasun berezia bizi baitu, bere-berea. Guk nahi dugunak muga txikiagoak ditu. Ezaugarri batzuk nabarmendu nahi ditugu, neurri batean edo bestean familiek beren nortasuna isladatua ikus dezaten eta, horrela, beren errealitatea argiago bizi dezaten. Horretatik abiatuta, gure ustez jatorrenak di- ren giza eta kristau-baloreen arabera bizitzeko aukera eskaini nahi diegu, horien argiz heldutasun osoagora irits daitezten.

28. Famili bizitza deskribatu nahi hau eta famili bizitza bizitzeko jarrerak az- tertu nahia, beraren barnetasun isila zulatzea irudituko zaio norbaiti. Horretaz jabetzen gara. Horregatik, aurrez esan nahi dugu, ondoren esaten dugun guztia pertsonari eta beronen bizitza pribatuari zor zaion errespetu sakonenarekin esa- ten dugula. Zerbitzatzeko borondate garbiak bakarrik eta, behar denean, gauzak argitzeko borondateak eragin digu baieztapen eta gogoeta hauek egitera.

29. Hasieratik bertatik aitortu nahi dugu, familia asko direla, giza eta kristau- maitasunak argiturik, famili bizitzaren prozesua eta ibilbidea bare eta bakean bizitzeko gai direnak, gure gizartearen aldaketa-dinamika honek sortzen dizkien tirabira guztien erdian. Honek benetan pozten gaitu eta esperantza ematen digu. Baina hau aitortzeak ez digu eragotziko beste alderdi batzuk jasotzea, fa- mili bizitzaren irudi ilunagoa ematen dutenak, lehen begirada batera behintzat.

• *Solidaritarik ezaren arriskua*

30. Gu bizi garen gizarte honetan, barnetasunaz eta bakardadeaz babesturiko lasaitasun, ongizate eta bakezko toki izaten saiatu beharko luke familiak. Hirie- tako jende-pilatzeak sortzen duen anonimatuak harreman-falta bultzatu eta es- tal dezake, elkar ez ezagutzera eraginez. Bereganak makurtu eta bere baitan ixten den familia, babesleku antzeko zerbait bihurtzen da, famili giroan sartzen utzi nahi ez zaion eta urruti ikusi nahi litzatekeen mundu etsai horren aurrean.

Familia ulertu eta bizitzeko era honek ondorio garrantzizkoak ekar ditzake, familia osatzen duten kideen izaera eta harremanentzat. Seme-alaben afektibitatearen garapenak ere nozituko ditu bakarkeria sozial horren ondorioak. Eta esan daiteke familia bera irits daitekeela solidaritarik ezaren transmisio-uhala izatera.

- ***Famili proiektua poliki-poliki gauzatzen joatea***

31. Baina, familiak ez dira gelditzen gizarteak bizi dituen tirabira eta istilueta-tik aparte. Sarritan familiek ez dute eskaintzen behar den baretasun eta giro gozorik, familiako kideek aurki dezaten, gizarteak askotan ukatzen diena. Famili errealitatea den bezala begiratzeak, ikusteko pozgarriak ez diren gauzak ikustera eramane behar gaitu. Baina, hain pozgarriak ez diren gauza hauek, gezurra badi-rudi ere, beren barrean eramane dezakete errealitate helduago eta alaigarriagoen hazia.

Ikuspegi honetatik, familia, atergabe osatu beharreko helmuga edo hel-buru bezala ikusten da; eta bertatik espero izan daitezkeen gauza mesedega-riak, ahalegin tinko, latz eta itxaropentsuaren bidez lortu beharreko helburuak izango dira. Familia ez da berez egiten den zerbait; eguneroko ahaleginean egi-nez egin behar da.

Familia, gainera, giza harremanek eta bizikidetzak berekin dituzten tira-bira ohikoen erdian bizi den errealitate soziala da. Gizarteko giroak tirabira ho-riek gehiago edo gutxiago sakon ditzake, benetako istilu bihurtzeraino. Giza komunikazioaren zailtasuna berezkoa dugu, eta hori gogoan izan behar dugu beti. Pertsonen hurbiltasun estua etenak eta borrokak sortzeko aukera gerta dai-teke, beren arteko gertutasuna eta bategite barnekoa areagotzeko ordez.

- ***Komunikazio eta elkarrizketa bidez***

32. Komunikazioa eta elkarrizketa dira baliabide jatorrak, pertsonen arteko elkar-ulertzea sortzeko, bata bestearengandik urruntzeko arrazoiak gainditzeko, eta irizpide eta ikuspegi ezberdinen diferentziak desegiteko. Hala eta guztiz ere, galde genezake, zer neurritan eskaintzen duen gaurko bizitzak –hainbeste dei, eginbehar eta interesgune dituen bizitza honek– behar den psikologi alorra eta baretasuna elkarrizketa eta komunikazioa bideratzeko. Zarata gehiegi dago, be-harbada, elkar entzuteko, eta presa larregi elkar aditzeko.

Baliteke familia barruan ozenago entzutea kanpoko ahotsak, eta garbiago ikustea kanpotik datozen irudiak, etxekoen hitzak eta aurpegiak baino. Eta, be-harbada, ez da hau izango elkarrizketarako zailtasun bakarra. Ideia, irizpide eta sentipenetan oinarri bateratu bat ez izateak zailago bihur ditzake errespetuzko komunikazioa eta elkarrizketa. Eta horien lekua eztabaidak edota «isiltasunak» bete dezakete.

- ***«Etsipenezko» isiltasunaren «bakea»***

33. Zenbaitetan komunikazio eta elkarrizketa hau zaila izaten bada ezkonduen artean, eta ez da batere errazten gurasoen eta seme-alaben artekoa denean. Bizi-

tzari aurre egiteko hain era ezberdina daukatenez belaunaldi berriek, sarri askotan familiei sufriarazten dien «belaunaldien arteko istilu» bihurtzera iristen dira. Gurasoek eta seme-alabek ez dute berdin pentsatzen eta jokatzeko, batzuen-tzat eta besteentzat garrantzizkoak diren gaitan.

Batzuk ora edo arbuiagarria ikusten dutena, ez dute besteek hala ikusten. Sexuaren eta maitasuneko harremanen alorra gatazka latzak sortzen dituen arazo gertatzen da. Seme-alabek beren askatasunaren eskakizun beharrezko ikusten dutena, gurasoek, alderantziz, familia barruko ordenaren eta moral ja-tortasunaren eskakizun berezko eta argi bezala ikusiko dute. Langabezia dela medio, etorkizuna ilun ikusteak ez die errazten gazteei beren bizitzarako proiektua egitea, proiektu horren arabera egoera asko «normalizatze»ko». Erljio-gaiak eta ideologi eta politika-aukerek erremin-karga berezia daramate berekin, elkar-riketa bideratzeko ahaleginak ezabatuz.

Isiltasun «etsia» izan daiteke «familiaren bakea» bideratzeko aukera ba-karra. Isiltasun honek bere prezio gogorra ordaintzea eska dezake: «nahi dutena egiten uzteak» sortzen duen errudunaren sentimendua.

- ***Arrazoi gabeko errudun-sentipena***

34. «Zer egin behar genuen egin ez duguna?», galdetzen duzue zenbait gura-sok, zeuen etxe barruan drogomenpetasunaren, moral nahasketaren edo federik ezaren esperientzia mingarria bizi izan duzuenean.

Gezurrezkoa izango litzateke eta, gainera, zuzengabekoa, familietako kon-ponduezin hallen errua gurasoen interes ezari eta maitasun-faltari egozte. Era berean okerra izango litzateke erru hori, besterik gabe, seme-alaben experien-tzia ezari edo ardura ezari egozte. Bestalde, ez litzateke bide egokia izango, la-sai gelditzeko errua besteengan bilatu eta besteei botatzea. Mina askotan maita-sunaren berezko agerpena izaten da, bere nahirik eta ametsik onenak betetzea lortu ez duen maitasunaren agerpen, eta hori elkar gehien maite duten pertso-nengan. Zenbait kasu larritan, min hori frustrazio eta frakasoaren sentipen ilu-naren ondorio izan daiteke.

- ***Maitasuna, famili proiektuaren zerbitzuan***

35. Giza bihotzak bere barnean duen maitasun-ahalmen indartsuan sinesten dugu tinko; batez ere, maitasun hori senar-emazteen artekoa eta guraso eta seme-alaben artekoa denean. Horrexek eragiten digu, familia sortu eta sendo-tzeko zeregin eder hall zuekin batera itxaropenez aztertzer, beraren giza sustrai benetakoen eta sakonenak oinarri harturik.

Badakigu hori egiteko aukera bakarra, hemen esan eta iradoki dezakegu-nari zuek eman diezaiokezuen esperientziaren bizitasun gizalegezko eta maita-suneko dela. Sendotasun guztiaz uste dugu, Pastoral Idazki honen lehen ata-lean zehaztu dugun giro sozio-kulturalean ere, familia, giza bihotzean ditugun alderdirik ederrenak eta sortzaileenak eskaintzea merezi duen bizitza-proiektua dela.

II.- FAMILIARI BURUZKO KRISTAU IKUSPEGIA

Ezkontza eta familiari buruzko kristau-ikuspegia, gizakiaren eta gizartearen zerbitzura

- ***Familiaren giza duintasuna***

36. Gaurko familia nola dagoen ikusteko zenbait alderdi bildu ondoren, orain ezkontza eta familiari buruzko kristau-ikuspegiak zer dioen azaldu nahi dizuegu. Pertsona gauzatzeak eta gizartearen onak zerikusi handia dute pertsonaren eta gizartearen duintasuna praktikan aitortzearekin eta bi horien berezko eginkizunak aitortzearekin.

Elizak garrantzizko zerbitzua egiten dio gizadiari, berak familiaren egiazko izaera dela uste duena zaintzen duenean. Jainkoarengana eta Beronek gizadiari buruz duen egitasmora zabalik dagoen gizakiaren berezko duintasunarekin eta ulermen osoarekin loturan ikusten baitu Elizak familia.

- ***Izaeraren irakurketa fedearen argira***

37. Elizak giza Izaeraren ezagutzan sakonduz irakurri ohi du, gizadiari buruz Jainkoak duen egitasmo hori. Baina, gainera, kristau-fedearen argira iharduten du; fede horrek esaten digu, hain zuzen, zer den gizakia eta zer-nolako bizitza-proiektua burutzerat deitua dagoen, Jainkoaren asmoetan. Horrela, Jesukristok aldarrikatu eta burutu duen salbamen-asmoa, gizakia bere askatasun eta osotasunera eramateko salbamen-asmoa, ezkontza eta familiaraino ere iristen da. Hain zuzen, Jesukristogan «bihurtuko da egia gizadiak duen bizi-nahia, zuzentasun, askatasun eta zorientasun-nahia» (ikus gure Pastoral Idazkia, *Ebanjelizatzea federik ezak jotako egunotan*, 1994, Piztuerako Pazkoa, 35. zenb.).

Vatikanoko II. Kontzilioak argi eta garbi adierazi zuen, «pertsonaren eta gizartearen salbamena lotu-loturik dagoela senar-emazteen eta famili elkartearen ongizatearekin» (*Gaudium et spes*, 47. zenb.). Gizakia eta beronen osabete-tzea gizartean, ardatz gertatzen dira oraindik ere, kristau-mezuak eta Elizaren irakaspenak ezkontza eta familiari buruz jartzen duten arretan.

Bide honi jarraituz, Joan Paulo II.a Alta Santuak *Familiaris consortio* bere entziklikan (1. zenb.) esaten zuenez, «Eliza konturatzen da ezkontza eta familia direla gizadiaren ondasunik preziatuenak. Horregatik bere ahotsa entzunarazi eta bere laguntza eskaini nahi dio, ezkontzaren eta familiaren balioa ezaguturik balio horrek eskatzen duen leialtasunez bizi nahi duen orori; zalantza eta kezka guztien artean egia bilatzen duen orori; eta norberaren famili egitasmoa askatasunez bizitzeko zuzenkontrako eragozpenak dituen orori».

- ***Elizaren hitzaren esanahia familiari buruz***

38. Ez dute ongi ulertzen Elizaren pentsamoldea, beronek ezkontza eta familiari buruz jendaurrean ematen duen irakatsia eta berori gizartean eraginkor bihurtu nahia, Elizari ez dagokion eta beronen ebanjelizatze-lanarekin zeriku-

sirik ez duen esparru batean sartzea dela uste dutenek. Baina Elizak ez diezaioke uko egin, pertsonaren osotasun beterako bidea dela uste duena gizarteari eskaintzeari.

Familia, maitasun-elkarte

- ***Maitasunezko hautapena askatasunean eta berdintasunean***

39. Familia gizonaren eta emakumearen maitasun eta bizitza-elkartasunean gauzatzen da; elkartasun honek giza sexualitatean ditu bere erroak, fisiologiaz eta psikologiaz desberdina eta elkarren osagarri den giza sexualitatean. Gizaki osoa sexualitateaz ezotua dago, sexu bakoitzak dituen aberastasun eta mugaketa guztiekin. Desberdintasunak berezko dei bat darama azpian, elkarren osagarri izateko eta elkarri beren buruak eskaintzeko deia, erabat eta betiko elkarrentzat izateko bokazioarekin batera.

Familiaren sorreran, elkar maitatu nahi dutenek askatasunez eta borondatez egindako beren buruen eskaintza dago, bata bestearena izateko gaitasunez egindako eskaintza, sexu-harremanak barne. Pertsonen arteko maitasunaren fruitu da familia; eta maitasun hori gizonaren eta emakumearen berezko berdintasunean eta giza duintasunean oinarritua dagoen hautapen libre baten bidez eginiko eskaintzaren arabera bizitzen da.

- ***Maitasuna eta sexualitatea***

40. Familiaren oinarrian dagoen pertsonen arteko batasuna, sexu aldetik desberdinak diren bi pertsonak bat egitetik sortzen da. Hala ere, sexu-batasunak bakarrik ez du ziurtatzen, egiaz gizalegezkoa den maitasuna emango denik. Sexualitatean sustraiturik, ezkonduen maitasunak goragoko komunikazio eta samurtasun-mailak eskatzen ditu, eta espirituzko legeez kudeatu behar da. Horregatik, erabat gizalegezkoa izango den sexu-batasuna ez daiteke bi laguneren arteko atseginaren bizikizun soil izatera mugatu. Zoriontasun-promesa darama berekin; zoriontasuna, ordea, maitasun-eskaintzaren barruan egiten den erabateko komunikazioaren fruitu da.

Gizonak eta emakumeak sexu-harremanetarako eta maitasunerako duten bokazioari buruzko giza irakurkera hau Jainkoaren asmoetan eta jatorrizko proiektuan aurkitzen da. Gizona bakarrik egon ez zedin egin zuen Jainkoak emakumea; eta, biengan bere irudia moldatzean, elkarriketarako eta harremanetarako gai egin zituen; elkarriketak eta komunikazioak, ordea, gorputzez eta espirituz biak haragi bat izanez egindako elkarren arteko sexu-eskaintzan lortzen dute beren adierazpen betea (Gn 1,27; 2,18.24). Gizonak eta emakumeak elkar komunikatu eta maitatzeko duten gaitasunak adierazpen bereziki sakona eta norbera osabeteko denaren agintzari betea lortzen ditu elkarbanatzen den bizitzan eta giza sexualitateari dagozkion era askotako agerpenetan.

- ***Betiko iraupenaren eta osotasunaren eskakizunez***

41. Maitasunean bizi den sexu-harremanak bere baitan darama betiko iraupenaren eta osotasunaren deia eta eskakizuna, biotan konprometitua baitago gi-

zonaren eta emakumearen duintasun berdina. Osotasunezko maitasuna da hau, eta sexu-eskaintzak berekin duen osotasunezko eskaintzaren neurrikoa izatea eskatzen du. Bere sexualitatearen jabe da pertsona, baina sexualitateak berezkoak dituen zereginen arabera bizi behar du: zeregin pertsonalak, pertsona artekoak eta sozialak, alegia. Sexualitatearen osotasunezko ikuspegi gizalegezko hau galtzeak sexua arinkeriaz erabiltzera eramaten du eta gizatasuna galtzera; eta ustekabean sasijainko bihurturik, bere esklabu egin gaitzake.

- ***Ezkontza eta familia***

42. Ezkontza erakundetuz eta ezkontzari jandaurreko aitortpena eginez, gizarteak sendotasuna eta tinkotasuna eman nahi dizkio, elkarri beren buruak eskaintzetik eta giza sexualitatea bere betean bizitzetik sortutako maitasun-elkartasunari. Horrela, pertsonaren giza duintasuna babestu nahi du, harreman sexualek hain gogor konprometitzen duten giza duintasuna. Gainera, giza bizitza berriak sortzean bere bete lortuko duen famili elkartearen oinarri sendoa jartzen du.

- ***Kristau-ezkontza, sakramentu***

43. Ezkontza monogamiako eta askaezina bakarrik da gai, ezkontza oinarri dela sortutako elkartasun-bizitzaren giza mailako aberastasuna ziurtatzeko, maila pertsonalean nahiz sozialean. Horrela ulertzen du Elizak, senar-emazteen maitasunaren izaerari eta giza zentzuari buruz berak duen ikuspuntutik, eta maitasun horrek bere baitan daraman bizitza-konpromezuaren ikuspuntutik. Hori bera uste du, gainera, «Jainkoaren hitza gorde eta ulertzeko» eginkizuna betez (*Dei Verbum*, 12. zenb.), berak egiten duen Jesusen hitzen irakurketaren argitan. Jesus bera izan zen, Moisesek ontzat emandako dibortzio-agiriaren legera jotzen zutenean, agindu ziena «Jainkoak batu zuena ez dezala gizakiak banandu» (Mk 10,9); eta hasierako egoera berriro asmoz agindu zuen hori, izan ere «hasieran ez zen horrela izan» (Mt 19,8).

Ezkontzaren ikuspegi honetatik, Kristok Elizarekin duen batasun askaezinen sakramentuzko ezaugarri bihurtzen da ezkontza kristauontzat. Ezkontzaren sakramentuzko izaerak indartu eta sendotu egiten du bakarra eta askaezina izan behar diren jatorrizko bere eskakizuna.

44. Gaurko gizarteak ez du errazki onartzen maitasunari eta ezkontzari buruzko ulerkuntza hau. Alderantziz, arbuiatu egiten du. Kristau-ezkontzak eta ezkontzera doazen gazteak ez dira libratzen gizarteko pentsaera honen eragine-tik.

Garrantzizkoa da, beraz, maitasunaren eta ezkontzaren giza eta ebanjeliozko baloreak ezagutu, maitatu eta bizitzara eramatea ezkonduen eta ezkontzera doazenen artean; izan ere, balore horiek bide eta adierazpen dira, ezkontzako maitasuna giza eta erlijio-mailan bere osotasunik beteenean gauzatzeko. Eta ez Elizak ezarritako legezko eta moralezko betebeharrak soila balitz bezala, hau da, nahikeria hutsa eta giza duintasunaren eta askatasunaren kontrakoa balitz bezala.

- ***Maitasuna, etengabeko helburu***

45. Ezkonduen bizitza eta, horren barruan, sexu-harremanak benetako maitasun-elkarte bat sortzera zuzenduak daude. Ezkontza, bere izatez, maitasun-elkarte da. Bi osagai hauek –sexua, alegia, eta maitasuna– banatu nahia, ezkontzaren barneneko izaeraren aurka doa. Baina ez da ahaztu behar ere, senar-emazteen arteko sexu-harremanek eta hortik sortutako atseginak ez dutela, besterik gabe, ziurtatzen maitasun-giroan bizi direnik. Ezkontzatik kanpora egia den hau, egia izan daiteke ezkontza-barruko harremanei dagokienez ere.

Horregatik, beharrezkoa da, senar-emazteek ohartuki eta etengabe beren ezkon-bizitza osoan maitasunaren alderdi komunikatzailea indartzea. Ibilbide bat eginez iritsi behar den jomuga izan behar du maitasunak; ibilbide honetan egon daitezke uneak eta aldiak ere, gutxi-asko luzeak, iluntasun eta atzerape-nezkoak, baita krisialdiak ere.

Agian, gehiegizko konfiantza batek, zoritxarrez bizipenak baiezten ez duen konfiantzak, sinetsaraz dezake, berez-berez hazten joango dela eta garbitzen maitasuna ezkontza barruan. Alderantziz, ezkonduak ezkontzaren oinarrian dagoen maitasuna zaintzen jakin behar dute. Prest egon behar dute, gainera, disziplina onartzeko eta beren buruei uko egiteko, beharrezko delako hori etor daitezkeen zailtasunak gainditzeko. Horrela bakarrik lortu ahal izango dute, maitasun bete eta betikoaren promesa adierazteko onartua izan zen ezkontzako lotura ezin eramanezko zama eta menpetasun ez bihurtzea.

- ***Ezkonduen arteko maitasunaren indarra eta ahultasuna***

46. Zenbait alditan, senar-emazteak arimako eta maitasunezko «ahultasun-egoera» batean aurki daitezke; eta horren ondorioz, indargabeturik gera daitezke maitasun-dinamikaren bilakabidean ohiko eta berezkotzat jo beharko lirartekeen zailtasunari aurpegi emateko. Gutxi-asko zabaldua dagoen iritzia da, maitasuna bizirik dagoen artean bakarrik irauten duela ezkontzak. Baina horren aurka gogoratu beharra dago, ezkontzak erakundearen sendotasuna duela eta barneko egoera subjektiboen gorabeheren gainetik dagoela.

Senar-emazteei berei dagokie, Jainkoaren laguntzarekin eta besteen laguntzekin ere, erakundearen eskakizunen eta norberaren sentipenen arteko konponbide osoa bilatu, zaindu eta sendotzea etengabe. Maitasunean leial izatea da askatasunaren aitortzen indartsuena. Ez lukete ahaztu behar, bestalde, zailtasunetan eta elkarri leialtasuna gorde beharrezko deian sortzen diren pitzaduretan, beren maitasun-bizitzak baduela interesik beren seme-alabentzat ere. Hauek beren artean ikusteak gogoraziko die, beren arteko ezkon maitasuna ez dela senar-emazteei bakarrik dagokien zerbit.

Biziaren zerbitzura

- ***Ezkonduen maitasuna, eta ugalkortasuna***

47. Ezkonduen arteko harremanak, eta berdin komunikazio eta sexu-alorrean elkarri eskaintzearen bidez lortzen den harreman horien adierazpen osoa ere,

ugalkortasunera zuzenduak daude beren barne-dinamikaz. Berezko helburu hori sexuen arteko batasun fisikoan adierazten da. Hori ematen du agertzera senar-emazteen batasun espiritualak ere; hauen maitasunak, hain zuzen ere, gizaki berri bat sortuz bere mugak gainditzea du amets. Horregatik, sexualitatea ugalkortasunera zabalik egotea ez da eranskin, nahikeria edota kanpotik ezarritako zerbait gisa hartu behar, senar-emazteen nahierara balego bezala eta sexu-egintzak hori berezko ez balu bezala.

48. Egia da arazo korapilatsuak direla jaiotza-kontrolari eta hori lortzeko erabiltzen diren baliabideen moral alderdiari dagozkionak; baina horrek ez du oinarrizko egia hall ahaztera eraman behar, ezkontzaren giza aberastasuna eta senar-emazteen maitasun-elkartea ulertzeko beharrezkoa den egia: bere izatez norberaren buruaren eskaintza den ezkon maitasuna ez dela bikotearen beraren barruan agortzen. Bikotearen gainetik, haurraren lortzea bilatzen du bere helburua, «maitasun horren irudi bizidun, ezkon batasunaren ezaugarri iraunkor eta aitaren eta amaren bilduma bizi eta berezi ezina den haurraren» (*Familiaris consortio* entziklika, 14. zenb.).

Haurrari uko egotea, planteamendu berekoien ondorioz haurraren sorkuntza atzeratzea, edota ernalketarenganako beldurra, ezkon maitasunaren adierazpen eta garapen osoaren kontrako jarrerak dira, eta berekin daramate ustekabeen sor daitekeen etsipen baten hazia. Gisa honetako jokabideek eragozpenak jartzen dizkiote senar-emazteen maitasunaren giza eta kristau-alderdien garapen osoari.

• ***Berekoikeria, eta maitasunaren hondamena***

49. Ezkon maitasuna etor daitezkeen seme-alaben trabarik gabe gozatzeko asmo gutxi-asko erabakiak nekez saihets dezake senar-emazte bien artekoa den berekoikeriaren itzala, eta errazki eraman dezake gogaitzera eta esperientzia berriak izateko amets engainagarriara. «Hazi zaitezte eta ugaritu» Jainkoaren agindu honek berekin darama «bete ezazue lurra» aginduaren aurrekoa den bedein-kapena (ikus Gn 1,28). Maitasun-komunikaziorik gabeko sexu-elkarketaren gozamenak senar-emazteen elkarrenganako «ezagutzaren» giza alorreko balio-galtzea dakarren bezala, era berean printzipioz eta nahita bereizketa egiten denean maitasunezko eskaintzaren eta ugalketaren artean, senar-emazteen sexu-maitasunaren berezko dinamikaren haustura bat gertatzen da.

Ezkontzako maitasuna desitxuratzeak ukaezinezko ondorioak ditu gainera, giza maitasuna, era askotako bere azalpenetan, ulertzeko era jatorrari dagokio-

¹ Vatikanoko II. Kontzilioak *Gaudium et spes* konstituzioko 50. zenbakian gogoratzen zien senar-emazteei, bizia besteei emateko beren eginbeharrari buruz «beraiek ez dezaketela beren nahierara joka, baizik eta kontzientziaren esanera ihardun behar dutela beti; kontzientziak, ordea Jainkoaren legearen esanera egon behar du; gainera, aintzakotzat hartu behar dute Elizaren Irakaspena, berak adierazten duelako jatorki Jainkoaren legea Ebanjelioaren argira», Joan Paulo II.a Aita Santuak *Familiaris consortio* bere entziklikako 29. zenbakian, Kontzilioaren, Paulo VI.a Aita Santuaren *Humanae vitae* entziklikako, eta 1980ko Gotzainen VI. Sinodoko erakutsien bidetik, erakusten zuen berriro, «ezkon maitasunak osoki gizalegezkoa izan behar duela, bakarrari eskainia eta bizitza berri bat sortzera irekia», Joan Paulo II.ak idatzi berria duen *Evangelium vitae* entziklikan legekotzat ematen du, ugalkortasuna kontrolpean edukitzeko naturazko baliabideak erabiltzea eta senar-emazteen beharkizun moralak gogoratzen du, «beregian ezarriak dauden lege biologikoak gorde behar dituztela» (97. zenb.)

nez. Giza harremanen dohaintasun-zentzua galtzeak, pertsonak bere-berea eta barrukoena duen hori erabilgai huts bihurtzeak, eta aitortzen ez bada ere gauza guztiak salerosketagai bihur daitezkeen usteak, zera adierazten dute: egiazko giza maitasunaren alderdirik ederrena galdu dela. Eta ez dugu pentsatu behar, gauza hauek ez dutela zerikusirik ezkon maitasunaren esperientzia pozgarria galtzearekin, seme-alabak bihotz zabalez onartuz gainditu egiten baititu maitasunak bere mugak.

50. Gure kulturak dituen kontraesanen erdian ere, kristau-baloreen espiritu-eraginean oinarritutako ezkontzaren aberastasuna bere osoan bizi nahi dutenek ez dituzte ahaztu behar ezkontzak bere-bereak dituen alderdi hauek, nor bana-koari eta gizarteari dagozkion alderdiak. Hori esatean ez dugu ahazten sozio-ekonomi alorreko eta bestelako baldintzen eragina, eta konturatzen gara senar-emazteen asmorik ederrenen kontra egon daitekeela (*Gaudium et spes*, 50. zenb.). Ukaezinak dira gaur egungo pentsamoldeak egin dituen lorpenak, gizonaren eta emakumearen duintasun berdina eta kenezina aitortzean ezkontza barruan; ukaezinak dira gizakiaren arrazoizkotasunari berezko gisa aitortzen zaizkion balore utziezinak ere; bainak horiek ez daukate zertan ezkutaturik maitasunaren eta ugalkortasunaren artean dagoen berezko loturaren balore egiazkoak.

Gauzak oker ulertzea da, «berezkoa» dena eta «nahikeria» hutsa eta itsua dena nahastea. Baina, bestalde, ez litzateke egoki izango alderdi bakar bati begiratzen dion gaurko kulturatik datorren gizatasun-galtzea ahaztea; kontsumokeria berekoi eta zentzugabearen mesedetan, kentzen ari baita poliki-poliki giza izaerari beronek dituen gaitasunik garbien eta ederrenak.

- ***Bizia ematearen eginkizun soziala***

51. Ezkon eta famili bizitzaren aberastasuna agerian jartzen duen ikuspegi benetan gizalegezko hau edertua eta sendotua geratzen da, nabarmenki sozialagoa den beste ikuspegi batetik. Ezkontza eta familia dira Jainkoak eta naturak nahi izan duten gune berezia gizadiak bere iraupena segurta dezan; ez baitezake gizadiak ontzat eman, bera talde osoaren autoxehaketa baten ondorioz desagertzea. Bere erraietan darama gizadiak txertatua bizirik irauteko deia, nahiz eta arrazoiz agertzerik ez izan, zergatik behar duen horrek horrela. Naturak berak jarri du gizonaren eta emakumearengan elkar ongi nahi izatera eta maitatzerako deia, haurrarengan bere mugak gainditzen dituen maitasunez maitatu ere. Hori ahaztea gauzen egiaren kontra joatea izango litzateke eta, ondorio ezjakinak izango lituzkeen arrisku batean sartuz, artifizialki zerbait berria sortu nahi izatea.

Jainkoak eta naturak eman die senar-emazteei eta famili elkarteari giza-diak beharrezko duen bizia emateko eginkizun ederra, zientziak hori beste era eta bidetatik lortzeko modua eskaintzen badu ere. Zientzia horrek ez darama bere baitan egiaz gizalegezkoa denaren «arrazoia» edo, beste era batera esanda, zientziak ez du beregan jokaeren argibide izan behar duen irizpide etikorik. Hori gogora ekartzea ez da hartu behar, besterik gabe, gainditua dagoen lehenaldi batera atzeraka joatea bezala, ezta zentzu oneko modernotasunaren aurrerape-nak onartu nahi ez izatea bezala ere.

52. Senar-emazteok, zuek ezagutzen duzue ondoen, gizakiaren bizia sortzeko duzuen eginkizun paregabea, eta bizitza horrek familiaren beroan bakarrik aurkitzen duela behar duen barrera eta «bizileku» egokia. Pertsonaren balioak eta duintasunak, pertsona bakoitzarenak, alegia, behar den arduraz jokatzeko eskatzen du zenbait «esperimentu» ausartaren aurrean, ez baitaukagu berorien ondorio sozialen «esperientzia» izaterik, eta sumatu ere nekez suma ditzakegu.

Famili elkarte bere giza izaera eta muinean denari buruz naturan eta kristau-fedean oinarritua dagoen ikuspegi honetatik, ez du zentzurik ezkontza eta familiaren bestelako eredu baliagarrietaz hitz egiteak; gizonaren eta emakumearen jatorrizko bitasuna, eta pertsona sortzearen oinarrian dagoen sexu eta maitasun-harremanak errespetatzen ez dituzten ereduaz hitz egiteak, alegia. Gizon eta emakume diren senar-emazteen elkarrenganako maitasunak bakarrik eskain dezake giza giro egokia, gizaki berri bati bizia eman eta, sortu ondoren, onartzeko.

- ***Seme-alabek familiari ematen dioten aberastasuna***

53. Senar-emazteen maitasunetik sortzen den bizitza berriak aberasgarria den egoera berri bat jartzen du familiako harremanetan. Ez du lehengo bizi-giro ona desagiten; alderantziz, bizimodu berri bat jartzen du familian, beteagoa eta aberasgarriagoa dena, eta elkarren artean onartutako eta ezkon maitasuna sakondu eta sendotzera eramane behar duen erantzukizun baten sortzaile dena. Horrela onartua izan behar du.

Ez senar-emazteek bakarrik, baita lehen jaioak diren seme-alabek ere prestaturik egon behar dute, naturak eta –bizitzaren ikuspegi erlijiosotik– Jainkoak berak ere eskuetan jarri dieten bizi berria onartzeko. Pertsona berri bat izatera daramaten prozesuei buruz zientziak izan ditzakeen ezaupide handi nahiz txikiak ez dute ezkutatu behar, eta are gutxiago baztertu, egia zoragarri hau: Jainkoak ahalmena eman diela gizonari eta emakumeari gizaki berri bat sortzera eramane duen prozesuan parte hartzeko. Zuei, senar-emazte fededunoi, dei egin nahi dizuegu, biziaren dohaina besteei emateko Jainkoak eman dizuen gaitasunaren esperientzia harrigarri eta zoragarria ezagutu eta bizi dezazuen.

54. Hala nahi izan arren, beren borondatearen kontra seme-alabarik izan ez duten senar-emazteek ere eman diezaiokete beren ezkon maitasunari naturak ukatzen dien ugalkortasun-esanahia. Etxerik eta giza berotasunik gabe dauden haurrak berekin hartzea, sozial ekimeneko ekintzatan parte hartzea eta beren buruak apostolutza-lanetarako era berezian eskaintzea, horra hor zenbait era bikoteek elkarrentzat duten maitasuna eta pozez bizi dutena emankor egin dezaten; horrela gainditu ahal izango dute, beraiengan sor daitekeen etsipena.

Seme-alaben heziketa, espiritu-alorreko sorkuntza berria

- ***Haurraren laguntza beharra eta familiaren maitasuna***

55. Laguntza guztien beharrean jaio ohi da mundura pertsona. Horregatik, gurasoek «gainezkako» maitasunez babestu ohi dute. Hasiera-hasieratik maitez izaten dituzte seme-alabek, eta maitasun horretan aurkitzen dute hauek bizi-

tzeko behar duten gerizpea. Ezertxo ere gabe jaio ohi da pertsona; baina, hala ere, berekin ditu autonomiaz eta askatasunez gero eta pertsonako izateko behar duen ahalmenaren hasikinak.

Mundu honetara ekarri dituen familiaren laguntza eskatzen dute seme-alabek, gorputzez ezezik arimaz eta espirituz ere hazteko. Ezkon bizitza eta senar-emazteen arteko maitasuna, berez, seme-alabak ekartzeko ezezik, seme-alabak «hesitzeko» ere badira. Familia ez da gizadiari jarraipena emateko mekanismo hutsa.

Seme-alabak ez dira gurasoek egin eta, gero, gizartearen esku uzteko ekoizpena, produktua, gizarteak bere interes, proiektu edota helburuen araberrako burutazio eta sentimenduak kutsa diezazkien, gurasoen borondatea kontuan izan beharrik gabe. Jaio berriaren ezerezak gurasoen era guztietako erantzuna behar du, naturak eman dien egitekoa burutu ahal izateko.

56. Bizia erretzean aitamek izan zuten egitekoa luzatu egiten da, horrela, seme-alabengan. Gurasoek ezin dituzte geldo-geldo utzi Jainkoak emandako seme-alabak, gizarteak «ostu» eta bere gogora molda ditzan. Horregatik, semea nahiz alaba dohainik eman dizuenak eginkizun zoragarri hau utzi du zuen, gurasoon, esku: haur hori espirituz ere moldatzeko eginkizuna. Zeuen esku duzue, neurri handi batean, seme-alaben «izatea» ezezik, baita beti zuen puska izango denaren giza «kalitatea» ere.

- ***Heziketa, erro-errotik familiari dagokion eginkizuna***

57. Badakigu, gaur egun bizi dugun gizarte eta pentsaera-giroan, oso zail duzuela heziketa-lana egoki betetzea. Badakigu nolako nahigabea ematen dizuen maiz, seme-alabentzat dituzuen asmorik ederrenak aurrera eramanezinak. Hala eta guztiz ere, animatu egiten zaituztegu, seme-alabentzat zeuen familiak berezko eta jatorrizko heziketa-gune izan daitezen eginahalak egitera. Pentsa eza-zue ez dela alferrikakoa zuen ahalegina, eta ohar zaitetze zuen heziketa-lanak baduela eragina seme-alaben nortasuna moldatzean.

Hurtzaroren hasierako bizipen eta esperientziekin zerikusi handia du, gero sentimenduak nola moldatuko diren, afektibitatea nola garatuko den, nolako burubideak izango dituen eta nolako baloreak, baita erlijiosoak ere, estimatuko. Ezinbestekoa dute hurrek gurasoen maitasuna nabaritzea, gurasoak berariei emanak bizi direla sumatzea, gurasoek maiteki hartzen dituztela ikustea. Ez dago gurasoen ordezkioak egingo dituenik. Familia da, beraz, pertsona lehenaldiz besteekin harremanetan jartzeko, hau da, sozializatzeko, berezko gunea.

- ***Utziezina den eginkizuna***

58. Ez utzi, beraz, familiok, jatorriz zeuena duzuen eta zeuei dagokizuen eginkizun hori. Ezta egoera sozio-ekonomikoak jartzen dizkizuen zailtasunak aitzakia harturik ere. Zeuen astia eta lanak antolatzekean, gurasook, kontuan izan behar duzue hori, balore-banaketa egokia eginez, hau da, baliotsuen zer duzuen kontuan hartuz. Ongi etorriko litzaizueke, seme-alabentzat nolako bizitza-proiektu edo egitasmoa nahi izango zenuketenez noizean behin hausnartzea ere;

izan ere, gure gizarte honetan, norgehiagoka eta konpetitibitate hutsak ezarritako parametro ekonomikoz erabakitzen da, nork balio duen eta nork ez.

Gazteek konturatu behar dute, badela balore ekonomiko soilak baino goragorik; lan profesionala betetzeak gizartearen zerbitzurako ere izan behar duela, eta lan hori solidaritzan betetzen jakin behar dutela. Janaritu eta landu egin behar du familiak espirtu hori. Seme-alabentzat «onena» nahi izatea gaizki ulertuz gero, ito eta eragotzi ditzakegu beraien desiorik ederrenak.

- ***Beren buruaren jabe eta aske izateko hezi***

59. Seme-alabak, bestalde, ez dira gurasoen jabegoa ere; beren buruaren jabe eta aske izatera deituak dira beraiek ere, eta saiatu egin behar dute beren bizitza moldatzen, famili esparrua gainditu eta gizartera irekiz. Familia gainditzen duten harremanak eskaintzen dizkio gazteari gizarteak. Gizartera zabalik egon behar honek maiz istilu mingarriak sortu ohi ditu familietan. Nola egin bat, alde batetik, seme-alabek beren buruen eta askatasunaren jabe izateko duten eskubidea eta, bestetik, helduera-bidean gurasoek seme-alabei lagun egiteko duten betebeharra?

Gurasoei maiz iruditzen zaie, eta arrazoiz, «beste batzuek» dutela seme-alabengan beraiek izan nahi duten eragina: beste pertsona batzuek nahiz talde ideologikoen, erakundeek, iritziek edota komunikabideek, alegia. Seme-alabei, beren aldetik, gehiegizkoa eta onartezina iruditzen zaie, eta eraman ezineko menpekotasuna ezartzea, gurasoak beraien bizitzan sartzea, hori bidezkoa izanik ere. Gurasoak sartze horrek atzeratu egiten omen du, behar ez bezala, gaztea bere buruaren jabe izatea. Dena dela, bere buruaren jabe izatera heldu beharra du gazteak. Ikus daitekeenez, belaunaldien arteko istilu eta gatazken agertoki gertatzen da familia. Hori horrela den neurrian, familiak izan beharko du, hala berean, egoera horiek, elkarmaitasunez eta elkarrizketaren bidez, gainditzeko toki.

- ***Elkarmaitasuna, komunikazioaren oinarri une zailetan***

60. Istiluak eta gatazkak izanik ere, familian elkar maitatzen jarraitzeko deia ez da amets beteezina. Badira hori esperientziaz dakiten familiak, horrela jokatu izan dutelako, zatiketengatik jokaera eta konportamendu mingarriak izan dituztenean ere. Horregatik diogu ez dela amets bete-ezina. Horrelako gatazkak elkar maitatzeari uko egin gabe eramatan direnean, bada hor berriro elkar ongi ulertzeko itxaropenik, elkar ulertze hori norainokoa izan daitekeen ez badakigu ere.

Maitasun hori da giro lasaian eta elkar estimatuz egin daitekeen elkarrizketaren eta komunikazioaren oinarri sendoa. Eta elkarrizketa izateak axolagabekeria edota tolerantzia geldoan erortzea galaraziko du, axolagabekeria ez baita ona inorentzat. Beharbada, honako hau da familiak lehenbailehen egin behar duten lanetako bat: elkarrizketa eta komunikaziorako leku gizalegezko izan dadin saiartzea, oztoporik eta haserrerik gabe mintzatzeko leku, eramanpezez eta pazientziaz elkarri entzun ahal izateko leku. Eta kanpotik datozkien hotsi aurre egiteko, isiltasun eta lasaitasun-giro handixeagoa behar izango da, ziur aski. Baina beharrezkoena nork bere iritzia eta ikuspegia, baketsu, azaldu ahal izatea da.

- ***Familia eta bakegintza***

61. Familian halako bake-giroa sortzeak gure herrian baketze politiko-soziala lortzeko duen balioa azpimarratu nahi dugu, azkenik. Familiaren baitan ikasi behar da, maitasuna dela elkar errespetatzeko eta pertsonen berezko duintasuna balioztatzekeo oinarria. Egiatzko maitasunak, gainera, «besteari» begiratzeko era garbitu egin dezake, nor bere ikuspegi hutsa izateak jartzen duen es-talkia kentzen lagunduz.

Familia eta gizartea

- ***Familia, ondasun publiko***

62. Pertsonak mundura ekartze, hesitze eta gizarteratze-lanean familiak no-lako eginkizun garrantzitsua duen ikusirik, gizarteak ezin du pentsatu familia –eta familiaren oinarri eta euskarri den ezkontza– ondasun pribatu hutsa denik. «Gizartearen lehenbiziko bizi-gunea» da familia (*Familiaris consortio* entzi-klika, 42. zenb.), eta gizarteak babestu behar duen ondasun soziala da bere izaeraz.

Horregatik, ezin da ulertu zergatik dioten erasotzen familiari, gizartean iritzi-giroa sortzeko eragin handia duten bitartekariak, kontuan izanik gizarte osoaren onarekin lotura estuan dagoela familia. Eta eraso hori sexu-askatasu-naren izenean egin ohi da –sexu-arazoa norberaren arazoa besteak ez dela-koan–, baita era bateko nahiz bestekeo ideologi planteamenduen izenean ere.

63. Ezkontzaren batasuna eta egonkortasuna erraztea eta sendotzea da gizar-teak familiaren onerako egin behar duen lehenbiziko gauza. Lehenengo eta be-hin, senar-emazteen arteko maitasunak ziurtatu behar du, egia da, bizikide-tzaren iraunkortasuna, senar-emazteen beraien onerako eta seme-alaben one-rako. Baina gizarteak ere segurtatu behar du ekonomi eta sozial egoera egokia, familiak bere izaeraz iritsi behar dituen helburuak lortu ahal izateko. Arazoari bere osoan begiraturaz, han da, alde batetik, senar-emazteen eta familiaren ona eta, bestetik, gizartearen ona bateraturaz izan ezik, ezin da ulertu familiaren izatea bere giza errealitate oso eta betean.

64. Ez dator bat ezkontzaz eta familiaz eman dugun irizpidearekin, egitez bat eginik dauden bikoteen edota bikote homosexualen egoera, eta bere izaeraz seme-alabak ekarri eta hesitzeko den egiatzko famili ereduaren egoera juridikoki eta sozialki parekidetzea.

- ***Familiari buruzko politika egokia***

65. Gizartearen onerako familia zeinen garrantzitsu den esateak familiari bu-ruzko politika egokia ekarri behar du, familiak bereak eta utziezinak dituen es-kubideak teorian eta praktikan onartuz.

Elizak, bere aldetik, uste du «bere eginkizun duela guztiei erakustea, zein den ezkontzaz eta familiaz Jainkoak giza izatearen barnean jarri duen egitas-

moa; baita bi erakunde horiek sustatzea eta berorien kontrako erasoetan berak defendatzea ere». Hori adierazten du 1983ko urriaren 22an *Familiaren Eskubideen Agiria* deritzan dokumentuak (ikus L hizkia), Aulki Santuko erakundeek eginik Joan Paulo II.a Alia Santuak ontzat emana. Familia eta gizartearen artean behar den lotura sozial eta juridikoak nolakoak izan behar lukeen argitzeko Elizak dituen printzipioak biltzen ditu *Agiri* horrek.

Ez dugu *Agiri* horretan esaten den guztia hemen jasoko. Ez da hau horretarako tokirik egokiena. Honako hau, ordea, azpimarratu nahi dugu: *Agiri* horretan aipatutako famili eskubideetan nabari daitekeen eta denentzat baliozkoa den «giza jakituria» onartu behar dutela, bai pertsonak beren ihardunbide pribatu nahiz publikoan, bai gizarteko era askotako taldeek. Hau oso garrantzitsua jotzen da.

Izugarrizko indarrez azpimarratzen dira gaurko kulturen pertsona bakoitzaren eskubideak, eta askotan behartsuenen interesen kaltetan gainera. Horregatik garrantzi handikoa da ozen entzunaraztea, oso beharrezko dela famili bizi-tzan ongi ulertutako solidaritza bizitzea, eta horri dagozkion eskubideak eta betebeharrak denentzat direla eskubide eta betebeharrak. Ez da jokabide egokia, familiak gizartearen egiteko garrantzitsua duela aitortu eta egiteko hori bete dezan eskatu bai, baina gero horiek bete ahal izateko behar den giro sozial eta ekonomikoa egiten ez saiatzea.

- ***Familiaren protagonismoa alor politiko-sozialean***

66. Beraiei dagokien bizitza publikoko alor honetan zer egin dezaketean eta zer egin behar duten jakin behar dute eta bultzatu familiek. Gauden egoera soziopolitikorako argigarri denez, Joan Paulo II.a Aita Santuak *Familiaris consortio* entziklikako 44. zenbakian dioena aipatu nahi dugu hemen: «Familiek behar dute beste inork baino lehen saiatu, Estatuak dituen lege eta erakundeek familiaren eskubide eta betebeharrei kalte ez egiteaz gainera, horiei eutsi eta laguntza ematen. Familiek gero eta garbiago ikusi behar dute, beraiek direla “famili politika” deritzan horretan “protagonista”, eta beraiek hartu behar dutela gizartearen eraldatzeko ardura».

Gure artean ez da behar adinbat entzuten familien ahotsa. Ez dugu uste oker gaudenik hau esatean. Ez dirudi modan dagoenik familiaz, beraren egitekoaz eta dagozkion eskubideez mintzatzea. Eta zenbaiten ustetan, hori esatea atzera egitea da, gairatua dagoen eta eskuratu den askatasunaren kontra zegoen egoerara itzuli nahi izatea. Horrelako iritzien aurrean honako hau adierazi nahi dugu: sinetsiak gaudela familiaren eginkizunak sendotuz eta berea duen askatasuna onartzuz, zabalagoak egiten direla egiaz gizartearen askatasun-guneak.

- ***Guraso-elkarteen iharduna***

67. Zolitasunez aztertu behar genuke zein talde edo erakunde sozialek bereganatzen dituen, egitez, gizartearen gauzak askatasun eta eskuhartze handiagoz egingo balira familiari legezkiokien eginbeharrak. Bestalde, ez zaigu iruditzen famili asoziazionismoa gure artean behar bezain garatua dagoenik.

Teoriaz aitortzen diegu beren garrantzia irakaskuntza-alorrean gurasoen ekintzari; baina guraso-elkarteen falta sumatzen dugu bereziki ikastetxeetan. Familiak ere beren ahotsa entzunarazi beharko lukete iritzi publikoaren erakuntzan, gaur egungo egoera historikoari egokituak leudekeen elkarten bidez; iritzi publikoa, hain zuzen ere, gehiegi baldintzatua aurkitzen da, talde politikoek horretan duten eragin handia dela medio. Eta ez dugu ahaztu behar, «familien eginkizun sozialak bere lekua izan behar duela politika-alorrean ere» (*Familiaris consortio* entziklika, 44. zenb.).

Norbere kontzientziarekiko leialtasuna eta famili egitasmo kristaua

• *Elizaren irakaspena eta norberaren kontzientzia*

68. Familiari buruzko kristau-ikuspegia eskaini dizuegu orain artean. Familiak zer izan eta zer egin behar duen aztertzen, saiatu gara. Familia berezko erakundea delarik eta, horregatik, pertsonaren izate eta duintasunari oso lotua dagoelarik, Jainkoak familiari buruz zein asmo duen azaltzen saiatu gara. Beste era batera esanda, pertsonarentzat, bai bere bizitzarako bai gizarte-bizitzarako, oso garrantzitsua den honako galdera honi erantzun nahi izan diogu: zer izan behar du familiak Jainkoaren asmoaren arabera, asmo hori giza izaera beretik irakurriz, baina kristau-fedearen laguntzaz? Ezkontza eta familiari buruzko ikuspegi hori azaldu nahi izan dizuegu, gaurko kultur giro honetarako ere balio duelakoan, gure gizartean zabaldua dagoen pentsaera eta sentieraren eraginez familiari buruz oso bestelakoak diren iritzien aurrean.

Badira kristauak eta beren buruak Eliza katolikoko kideztat dauzkatenak, baina ezkontzari buruzko kristau-ikuspegi hau bere osoan onartzen ez dutenak.

• *Norberaren iritzienganako leialtasuna*

69. Zeuen famili bizitzarako proiektuan Ebanjelioaren balore gizagileak sartu nahi dituzuenok ezin zarete errealitate horretaz oharkabean gelditu. Gizarteko ohiturak eta usadioak ezin ditugu, besterik gabe, azken erreferentziatzat hartu norberaren jokaera erabakitzean, ezta giza legeek «legeztatzen» badituzte ere. Izan ere, gauza bat da kontzientziari eta besteen pentsaerari zor zaien errespetua, eta bestea errazegi amore ematea edota norberaren iritziei uko egitea.

Kristauen artean eta kristau-elkarte barnean ere agertu ohi dina irtenbide zaileko arazoak. Izan ere, ez datoz beti bat gauzek berez izan behar dutena eta kristau-elkartearen onak zer eskatzen duena, alde batetik, eta eskakizun horiei erantzun ezin dieten egoera bereziki zor zaien errespetua eta tolerantzia, bestetik.

Dena dela, zuzen eratua dagoen norberaren kontzientziak ikusten duen egiari leial eusteak sendotasun eta sakrifizio ugari eskatuko du maiz. Izan ere, bai alor honetan bai beste askotan, kristauak kontrako jarrerak jasan behar izango ditu, Jesusen Ebanjelioa Elizaren pentsaeraren arabera bizi nahi badu bederen.

III.- KRISTAU FAMILIA EBANJELIZATZEAREN ZERBITZUAN

70. Aurreko orrialdeetan, familiak, errealitate berezko eta unibertetsala denez, bete behar duen eginkizun ederra azaldu dizuegu, bai hura osatzen duten kideei buruz, bai gizarteari buruz. Baina familiari benetako kristau-ikuspegitik begiratzuz gero, ez da hor agortzen haren egitekoa.

Familiak, Elizaren eginkizun berezko eta berezia den ebanjelizatze-lanean ere esku hartzen du. Eta hori familiako kide bakoitza bataiatua den aldetik egiten du eta, gainera, ezkontzaren sakramentuzko izaerak duen eragin-indar bereziarekin. «Sinestedun guztiak dute Ebanjelioa hots egiteko erantzukizuna», esaten genizuen joan den urteko Bazkoan egindako gure Pastoral Idazkian (31. zenb.). Eta han gaineratzen genuen: «Guraso kristauak dituen familia, Ebanjelioa helarazteko eta distiratzeko leku izan daiteke eta izan behar du» (84. zenb.).

Hauxe izango da gure Pastoral Idazkiaren atal honen edukia.

Erljiozko ezkontza eta kristau-familia

• *Kristau-ezkontzaren aparteko izaera*

71. Kristau-ezkontzaren eta familiaren aberastasuna eta izaera ez dira horien berezko ikuskera hutsean agortzen. Biak, Aitarengandiko maitasunaren fruitu den eta Jesukristogan salbatua izan den gizadian sustraiturik daudenez, ikuspegi berrietara zabaltzen dira, fedetik bakarrik suma eta bizi daitezkeen ikuspegietara. Fedeak argitu egiten du biziaren eta maitasunaren misterioa; laguntza ematen digu, gainera, gizakiak bere baitan sustraitua daraman osotasunerako deian itsumustuka bakarrik suma daitezkeen hura garbiago ezagutzeko.

Kristau-ezkontzak eta familiak berengan duten edertasuna eta poza aurkitzen lagundu nahi dizuegu, haietan agertzen baita Jesukristorengan dugun bizi «berria», Espirituaren eta Bataioko birsortzearen fruitu den bizi hori. Maitasunaren eta ugalkortasunaren esperientzia «berria» –ezkontza Elizaren aurrean egin eta sakramentuz ospatu nahi izan zenutenetik bizi izandako esperientzia huraxe– aukera ezin hobea izan daiteke zeuen buruak kristau bezala ezagutzeko: Kristorekin bat eginak eta Hark senar-amodioz maitatzen duen Elizarengan txertatuak zaudetela, alegia, eta amodio horrek zuek ospatu zenuten ezkontzan lortzen duela bere adierazpen eta ezaugarrikeria ederrena.

Badakigu, noski, ezkontzak, gaur kristauen artean ospatzen den eran, ez duela segurtatzen, besterik gabe, giza mailako eta goi-naturazko errealitate eder hauen ezagutza argia. Gure elizetan ospatzen den ezkontza, ohikune soziala eta jendaurrekoa da. Egia da, horrelakoxea izatea eskatzen du beronen izaerak berak, ezkontza erakundea delako, giza elkartearen ongiarekin estu loturik dauden betebeharrei eusten dien erakundea. Baina ezkontza ospatzen den lekuak ez du berez eta besterik gabe ziurtatzen, ohikune horrek itxuren arabera adierazten dituen balore erlijioso eta kristauen jatortasuna. Ez dezagun ahaztu, gainera,

federik ezaren giroak kristauak ere jotzen gaituela eta, haurtzaroan bataiatuak izanik, kristau-elkarteetatik urrun bizi izan diren haiei erasaten diela, batez ere, giro horrek.

- ***Ezkontza eta familiari buruzko kristau-egitasmoa***

72. Kristau-elkartea osatzen dugunok eta bereziki Elizaren aurrean ezkondu zaretenok, garrantzi handiko eginkizun honi ekin behar diogu: kristauen ezkontzak eta familiak gero eta kristauagoak izatea lortzeari.

Helburu honek benetako oztopoak aurkitzen ditu. Badira bataiatuak beren fedea ahaztuta daukatenak, beren barruko eta elkarteko esperientzia erlijioso bizirik ez dutenak, edota Elizatik urrunduta bizi direnak. Horrek, halabeharrez, bereizketa bat egitera behartzen gaitu, hau da, Elizan ospatutako ezkontzak ez duela esan nahi, besterik gabe, familian egiazko kristau-biziera eramaten denik.

Nahiko sarri gertatzen da, gainera, ezkontideetako batek ez onartzea besteak duen sinesmena. Zenbait alditan, gurasoek seme-alaben haurtzaroan erein duten fedea, geroago familiaz kanpoko eraginen eraso jasan beharko du, eta horrek zailagoak bihurtuko ditu familia barruko elkartasuna eta elkarrekiko harremanak erlijio-alorrean. Bai ote du esanahirik eta benetako edukirik, gaur egun kristau-familiaz eta hauek sortzeko kristauak duten bokazioaz hitz egiten jarraitzeak?

Errealitate horiek ahaztu gabe, baliozkoa eta beharrezkoa da, ordea, kristau-ezkontzaren eta familiaren egitasmoa erreferentziazko helburu bezala aurkeztea, familiaren jokabide banakakoak eta elkartekoak argi ditzan. Egitasmo hori burutzekoan, egoera bakoitzeko gorabehera berezi eta zehatzetara egokitu beharra izango da.

Ez da, bestalde, ahaztu eta baztertu behar, badirela kristau-familiak; badi-rela hauek sortzen saiatzen diren gurasoak; eta badi-rela senar-emazteak ere, maitasunez eraturako bizitza-egitasmo bat burutzeko gogoz, beren asmorik onenei uko egin nahi ez dietenak. Gaur egun daukagun gizarte-giroan ere, posible izan behar du, bere iturria Jesusen Ebanjelioan duen ezkon eta famili bizitza eramateak.

Kristau-familiaren jainkozko eta eliz alderdia

- ***Bizitzaren osotasunean dira kristau ezkontza eta familia***

73. Kristauen ezkon eta famili bizitza, Ebanjelioko baloreen argira antolatua dagoenean eta bere bizi-arnasa fede, itxaropen eta maitasunetik hartzen duenean, bizitza osoa da «kristau» bizitza. Hori horrela izanik, egunerokoez maitzen den famili errealitate bakarrean ez du zentzurik bereizkuntzak egiten ibiltzeak, gizalegezkoak edota kristauak diren alderdien artean, berezkoak edota goi-naturazkoak diren alderdien artean. Bizitza osoa izate bakarraren barruan sartzen da, eta Espirituak eragiten dio, Jesukristogan salbatutako gizadi «berria» atergabe burutzen.

Hori horrela ulertzea pozbide gertatzen da benetan, maitasunaren eta ezkon eta famili bizieraren giza agerpenetan Bataioko sagarapenaren indar santutzailea bizi nahi duten kristautentzat.

- ***Kristau familiaren ebanjelizatze-eginkizuna***

74. Bada beste ikuspegi bat, kristau-familiaren izatea eta betekizunak hobeto ezagutzen lagundu behar diguna: familiak Elizaren bizitzan eta ebanjelizatze-eginkizunean duen partehartzea.

Vatikanoko 11. Kontzilioak familia «etxeko Eliza edo» zela esan zuen (*Lumen gentium*, 11. zenb.). Esapide hau geroago ere erabili dute Paulo VI.a eta Joan Paulo II.a Aita Santuek, zera adierazteko: kristau-familia, bere erara, Elizaren misterioaren beraren irudi bizi eta agerpen historikoa dela.

Elizari buruz sarritan entzun dugu esaten, berak Jainkoaren seme-alaben familia handia izan behar duela, gizadi osoaren batasunaren sakramentu edo ezaugarria (*Gaudium et spes*, 40. zenb.; *Lumen gentium*, 1. zenb.), eta gizakiek egiazko senidetasun jatorrean bat eginik bizitzeko duten bokazioaren benetako hasikina. Agian ez gara, ordea, hainbeste ohartu, familiaren egitekoa hobeto uler dezakegula alderantzizko ikuspegitik, hau da: eliz misterioaren hurbilagoko irudia eta hurreragoko agerpena ikus dezakegula familiarengan.

75. Horri buruzko gogoeta gurekin batean egitera gonbidatzen zaituztegu, kristau-familiaren izaera hobeto ezagutzeko eta, bide batez, eliz elkarteak eta famili elkarteak beren artean dituzten hurbiltasun eta elkartasun-lokarriak estuagotzeko. Era horretara, kristau-familiak barneago ikusi ahal izango dituzue Elizan zeuen buruak, zuek Elizaz ezkonduak egote hutsagatik edo zuen seme-alabak han bataiatuak izateagatik uste izan daitekeen baino.

Era berean, Elizak berak eta, zehazkiago, parroki elkarteek eta elizbarrutiko Elizak berak gehiago izan beharko zaituzte gogoan, gehiago aintzakotzat hartu eta gehiago zuengana jo, beren eginkizun eta izate-arrazoï bakarra den ebanjelizatzea aurrera eramatekoan (ikus gure Pastoral Idazkia, *Ebanjelizatzea federik ezak jotako egunotan*, 1. zenb.).

Elkarteko, santu eta santutzaile den erakundea

- ***Espirituaz eta sakramentuez santu egina***

76. Kristau-familia, Eliza santuaren misterioan txertatua dagoenez, bera ere harengan bizi den Espirituak santu egindako erakundea da. Halaxe da izan, bizi dugun giro sekularizatuan horrela hitz egiteak harridura sor badezake ere. Gizarte honetan ere izan behar du leku, santu eta sakratu diren gauzetarako, Jainkoak bere lekua izan behar duen bezalaxe.

Sinestedunak eta, bereziki, kristauek ez dauka Jainkoa zertan urrundu munduko errealitateetatik, hauei beren balioa emateko. Sortua eta mugatua denaren edertasuna eta trinkotasuna ez dabil leihan bere iturri agortezina duenarekin. Maitasunaren ederra eta maitasuna gozatzearen poza ez dira Jainkoari

indarrean kendutako ondasunak. Alderantziz, Haren maitasunaren dohain eta agergarri dira, eta halakotzat gozatu behar dituzte, Harekin batean ondasun horien jabe direnek. Giza errealitate hauek jainkozkoaren Absolutura garamatzate eta Harengan lortzen dute beren duintasun gorena eta beren azken betetasuna ere.

77. Ezkontza eta familia Jesukristogan burutu eta santu egindako giza errealitateak dira, Harengan gizakizkoaren eta jainkozkoaren artean eгина izan den batasun haustezinari esker; Espiritu Santuak bere presentzia eraginkorrez gaurkotu egiten du batasun hori eta sakramentuek –batez ere Bataioak eta Ezkontzak– modu eraginkorrean adierazten dute.

Ezkontzaren eta ezkon maitasunezko elkarri eskaintzearen giza duintasuna eta edertasuna honexegatik iristen dira beren esanahirik beteenera eta lortzen dute beren trinkotasunik sendoena: Jaunak kristauen arteko ezkontza, bere Elizarekin duen batasun haustezinaren sakramentuzko ezaugarri bihurtu zuelako (Ef 5,25-32). Santu eta santutzaile den batasun hau, senar-emazteen maitasunaren benetako izaera argitzen duen argia bezala zabaltzen da, eta indar bezala ere bai, maitasun horri ordurik ilun eta zailenetan ere eutsi ahal izateko.

Gauza ederra da ikustea, Jainkoaren itzalak nola babesten eta bikaintzen dituen pertsonak, gizon eta emakume, giza harremanen barnekotasunean, hain zuzen; beren izaeraz, nork bere burua oso-osorik ematea eskatzen duten harremanen barruan, alegia, eta, gezurra badirudi ere, gizalegezko denaren kontra tresna huts bihurtzeko bidea ere eskaintzen duten harremanen barru-barruan.

- ***Giza biziaren eta pertsonaren alderdi «sakratua»***

78. Familian pertsona bere ahuleriarik gorrienean ikusten dugu sorreratik bertatik eta, une berean, bizi-formarik bikainena bezala onartzen dugu, mugagabekora irekia dagoelako. Gure gizarteak ez ote du berriro giza biziaren, giza bizi ororen, balio «sakratua» aurkitu beharko, eta ez esapide erretoriko bezala, baikik eta haren duintasuna eta haren balioa oinarritzen duen erreferentzia bezala? Ez ote du familiak izan beharko, beragan sortzen den biziaren gertaera harrigarrian jainkozkoarekin topo egiteko lekurik aukeratuena?

Familiak izan beharko luke, noski, giza lekurik aukeratuena, bestearen nortasuna eta pertsonarteko komunikazio sozialeko harreman ororen alderdi erlijiosoak aurkitu ahal izateko, familiarengan garatu behar duen bizi eta maitasunezko elkartasun barnekoienaren esperientzia abiapuntutzat hartuz. Familiako kideak, Bataioaz eta sakramentuzko Ezkontzaz santuturik, betikotasunaren hazia eta agintzaria berekin daramatzen maitasunaren lokarriez bat eginik, santutasunean bizi eta haztera deituak daude.

- ***Giza familia handiaren proiektua***

79. Bizia eta pertsona « sakratuak» direla, hori familiaren barruan aurkitzeak oinarrikerik sendoena izan behar du, honako hau ere ezagutu eta onartzeko: giza-diko gizon eta emakume guztiek dutela giza familia handiaren kide izateko bokazioa.

Beharbada, ez gara ohartzen, familiak bere ahalmena galtzen duenean zenbaterainoko gizatasun-galtzea eta gizartearen beherakada sortzen den, hizkuntza, arraza, kultura eta erlijioen gainera giza pertsona orok duen balioa eta duintasuna ezagutzeko.

Jainkoak santututako familiari dagokion jainkozkoaren ezagutzak sendotasuna ematen dio, horrela, denen arteko senidetasunari, pertsona bere baitan eta bere izate mugatuan ezagutze hutsak segurta ezin dezakeen sendotasuna.

- ***Maitasunean eraikitako elkarte***

80. Familiaren bizitza bere kide guztien erlijiozko ikuskeran eta Jainkoa topatzeko bakoitzak duen bokazioan oinarritua dagoenean, horrelako familiaren bizitza osoa elkarte santu eta santutzaile bezala joango da garatzen eta maitasunean eraikitzen. Maitasun hau, aldi berean, berezkoa eta goi-naturazkoa izango da, espirituz eta haragiz egina; konfiantzaz onartua den norberaren emaitza oparoan mamitzen den maitasuna; pozez eta alaitasunez betea, batzutan; iluntasunez eta sakrifizioz, bestetan; Jainkoaren eta Hark maite dituen pertsonan maitasunarekiko fedean oinarritua, eta hainbat ukapenez garbitua; hauek gabe ezin baitaiteke «bestea» aintzat hartu eta errespetatu bere nortasunean eta familiako kide bakoitzak pixkanaka aurkituko duen bokazioaren begirunean.

Familiak, bizi eta maitasun-elkarte denez, garapen dinamiko eta aberasgarri baten momentu ezberdinetara egokitu beharko ditu bihotz-elkartasunezko loturak, kide bakoitzak duen nortasunaren hazkundeak eta norbere askatasun eta erantzukizunak eskatzen dituzten erritmoen arabera.

- ***Senar-emazteen eta guraso eta seme-alaben arteko harremanetan***

81. Senar-emazteen harremanek elkartasunezko jokabidean oinarritu beharko dute, batak bestea menpean hartzeko grina garbituz; gainera, elkar osatzea izan behar dute helburu, hotz-hotzean eta pragmatikoki egindako eginkizun-banaketa hutsa gaindituz. Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanek ere familiaren elkarte-lokarriak adierazi behar dituzte, eta estutu. Sor daitezkeen konponezinek ez dituzte moteldu behar, ezta eten ere, maitasunaren loturak; beti izan behar du posible «azkenerainoko» maitasunak.

Nolanahi ere, ikasi egin beharra dago, etengabe, maitatzen, bakoitzak bere egitasmoaren egile izateko duen deia errespetatuz maitatu ere, nahiz eta hori mingarri gertatu pertsonak eta egoerak ez aldatzea nahi luketenentzat.

Familiako kide guztiei egiten zaizue dei, maitasunean eliz elkarteko bizitzelula izateko zeuon bokazioa ezagutu dezazuen: familiak Eliza osatu behar du bere baitan, Espirituaren indarrak bat egindako maitasun-elkarte den Eliza.

- ***Bat egina eta irekia den elkarte***

82. Egia da, horrela izatekotan, familiak bere burua babestu egin beharko du, desagileak diren inguruko hainbat eragin-ingarretatik: batzuk ekonomikoak eta sozialak, besteak ideologikoak eta kulturalak. Baina, beti ere, bere burua barru-

rantz itzultitako mundu estu bihurtzeko arriskuan erori gabe, bere izate muga-tuak pixkanaka erakutsiko dion irekitasun soziala galarazteko arriskuan erori gabe.

Familiak, bera ere Eliza denez, bere izaera eta iharduera bereziaz eskainiko die munduari eta Elizari bere zerbitzua; eta, batez ere, seme-alabak sortzearen zerbitzua. “Era horretara, kristau-familia, Elizaren goi-naturazko ugalkortasunaren fruitu eta ezaugarri izateaz batera, Elizaren amatasunaren irudi, testigantza eta partaide egiten da” (*Familiaris consortio* entziklika, 49. zenb.).

Kristau-familia, fedea hots egitearen eta fede-heziketaren zerbitzuan

• ***Familia, «fedea aitortzeko» leku***

83. Elizaren ebanjelizatze-eginkizunaren utziezinezko alderdi bat da Jesukristoren aldarrikapena agerian egitea. Beronengan eskaintzen zaie gizaki guztiei salbamena, Jainkoaren graziaren eta errukiaren dohain bezala. Hala gogoratzen genuen, «*Ebanjelizatzea federik ezak jotako egunotan*» izeneko gure Pastoral Idazkian. Eta esaten genuen, gainera: «Ebanjelizatze-lanaren onerako berreskuratu egin behar dugu salbamenaren ageriko dei hori bere oparotasunean, baita Jainkoaren Hitzak duen indar salbatzailea ere, gizon-emakumeen hazkuntzarako dohaina dela iragarritz» (44. zenb.).

Jesusen Ebanjelioa hots egiteko zeregina Eliza osatzen dugun guztioi dagokigun gauza da. Zuek, sekularrok, familia duzue lekuri aukerakoena zeuen bataio-eskakizuna bete ahal izateko, «aitortzen den fedea» bizitzeko, alegia, eta fede hori aldarrikatu, aitortu, hezi eta sendotzeko. Hori gogoratzen genuen aipatu Pastoral Idazkian bertan: «Famili giroa sakonetik aldatu bada ere, familia aparteko leku da oraindik belaunaldiak beren artean komunikatzeko, pertsonen zabalkunde eta garapenerako eta, beraz, fedea helarazteko» (84. zenb.).

• ***Lehenengo «eskola» fede-hezierarako***

84. Dei egiten genizuen, lehenago, familiek hezierarako duten ahalmenean eta ekintzarako eraginean zeuen uste ona berreskuratzera. Eta orain beste hau esan nahi dizuegu: hori sendo sinesturik bakarrik bota ahal izango dituzte zuengan zainak, familiari buruzko zuen borondateak eta konpromezuak, hau da, familiek ez dutela izan behar erlijioari buruz isilik eta mutu egon behar den leku, baizik eta lehenengo «fede-eskola» eta oinarrizkoena behar dutela izan.

Badakigu zer-nolako zailtasun bereziak aurkitzen dituen erlijio-hezierak familietan, heziera orokorrak dituen zailtasunez gainera. Askatasunez bizi eta aitortzen den fedearen aldarrikapen-leku baketsu izateko orde, badirudi eraso gogorak datozkiola familiari kanpotik, gaurko gizartean nagusiturik dagoen federik ezak jotako girotik. Komunikabideak etxeko bihotzeraino sarturik ego-teak berak ere kontrako eragina du fedearen eskaintza eta kristau-hezierarako. Familiek indar gutxiegi daukate, kanpotik datozkien eraginen aurrean.

Gurasoek beren sufrimena aitortzen ez badute ere, berorren sustraian askotan ezina eta etsipena nabari dira. Ezin dute ulertu zergatik beren seme-

alabek hain balio gutxi ematen dieten, gurasoen bizitzei gorputz eman dieten kristau-sinesmen eta baloreei.

Baina hori guztia hala izanik ere, galdera egin beharko genieke geure buruei, aztertzen ari garen gertaera honen sustraian ez ote dagoen gurasoen fedesperientzia ahula ere eta beren fedea erraz eta era baketsuan eskaintzeko presaturik ez egotea.

- ***Arrazoirik gabeko atzerapenik gabe***

85. Badira itxuraz ulergarriagoak diren beste arrazoiak ere, heziera erlijiosoak galarazten dutenak. Esate baterako, seme-alaben fede erlijiosoak beraiek askatasunez egin behar duten aukeraren ondorio izan behar omen duela, aukera hori geroago, beren nortasuna garatzen doan heinean, egin behar omen dutela, eta gurasoek ez omen dituztela baldintzatu behar, aukera hori azkarregi egin dezaten.

Gurasoek nahi badute eta ez badute, haurra bere haurtzaroaren hasieratik hasten da bere nortasuna eratzen. Eta haurraren espirituzko ezereztasunak beharrezko egiten du, aurreko arrazoi horiek eskatzen duten eta itxura batean errespetuzkoa eta neutrala dirudien jarrera hori baino ekileagoak diren bestelako jarrerak hartzea. Haur jaio beroaren bizitza, materiala eta espirituala, bere osoan jartzen da gurasoen ardurapean; eta fede erlijiosoak nahiz federik ezak beren eragina dute nortasuna egituratzean eta pertsonaren sinesmena eta sentipenak moldatzean; hori dakienak eta aitortzen duenak ezin dezake uka, beharrezkoa dela heziera-aukera egitea, baita alderdi erlijiosoari dagokionez ere, bidelagun eta laguntzaile izan behar dutelako gurasoek beren seme-alaben nortasunaren garapen osoan.

- ***Elizaren ebanjelizatze-eginkizunean parte hartuz***

86. Kristau-familiak fede-elkarte txiki bat izan behar du. Jesusek Elizari emandako eginkizuna –gizaki guztiei bere Ebanjelioa aldarrikatzea (Mt 28,19)– bete behar du etxean. Elizaren fedea zabaltzeko eginkizuna beren gain hartzen dute gurasoek beren gogoz, familiak erakunde oinarrizko eta funtsezko bezala bete behar duen heziera-lana betetzekoan. Familia «fede-elkarte eta ebanjelizatzailea» izanik (*Familiaris consortio* entziklika, 51. zenb.), estuago bat egingo da kristau-elkarte handiarekin eta beronen fedea bizitzen eta besteei eskaintzen saiatuko da.

- ***Bizitzan oretzen den fedea***

87. Familia barruan egiten den fede-heziera ez da jakintza-sorta bat erakuste hutsa. Seme-alabei beren hazkuntza-prozesuan zehar laguntzea du helburu; fedearen ikuspegitik eta bizitza horri arnasa eman behar dioten ebanjeliozko baloreetatik beren bizitza eratzen joan daitezela laguntzea; pertsona bakoitzari zaion maitasunaren hurbiltasunetik lagundu ere, egunerokotasun konkretuaren barruan, era berezko, xume eta normalean. Horregatik, hain zuzen, «guraso kristauek duten ebanjelizatze-eginkizuna jatorrizko zerbait da eta besterengan utzi ezina» (*Familiaris consortio* entziklika, 53. zenb.).

Seme-alaben fede-nortasuna, egituratutako erlijio-heziera hartzen hasi baino askoz lehenago hasten da eratzten, eta erakuntza horretan lehen mailako zerikusia du amak. Seme-alabek beharrezkoa dute maitasunezko harreman gozoan lortutako segurtasun eta konfiantza-sentipena nabaritzea; oinarrikoa da hori norberatasun pertsonalaren garapen egokia lortzeko. Horrek gai egingo ditu besteekin harreman onak eta emankorrak izateko; zabalik egoten lagunduko die, Jainkoa aurkitu ahal izateko eta beren gogo-bihotzak Berarengana zuzentzeko (ikus Joan Paulo II.aren *Mezua* Bakearen Mundu Guztiko Egunerako, 1995, urtarrilak 1, 6. zenb.).

- ***Jarraipena duen prozesu batean***

88. Beren fede eta kristau-bizitzaren heldutasun-bidean seme-alabei eskaintzako laguntza ez da eten behar gaztetxo eta gaztaroko une zailtan. Aldi horretan hainbat eusteko eta aurkikuntza gertatu ohi da, amets eta irrika ederren sortzaile izan daitezkeen aurkikuntzak; baina ordurarte baketsu bizi izandako esperientziak hautsi eta iluntasunez uztera ere eraman dezaketenak. Eramanpena, konfiantza eraberritua, askatasun eta burujabetzaren lehenengo eta ondorengo esperientziak bideratzeko ahalegin egokiak, eta seme-alabek oraindik beharrezko duten hurbiltasun eta laguntza pitzatu gabeko maitasunaren azalpen izango dira eta bide emango dute heziera erlijiosorako.

- ***Ebanjelizatzailea eta etengabe ebanjelizatua den fedea***

89. «Jesukristori leial jarraitzearen testigantza berez, Berri Onaren hots egite isila, baina argia eta eraginkorra da jadanik», hori genioen joan den urtean Paulo VI.a Aita Santuari jarraituz (*Ebanjelizatzea federik ezak jotako egunotan* Pastoral Idazkia, 45. zenb.). Hori famili hezierari dagokio bereziki. Familiako harremanen hurbiltasunak ez du erraza egiten gordean edukitzea ondo konponezinezkoak diren alderdiak, baizik eta agerian jartzen ditu. Norberaren testigantzarik gabe, aginpide-printzipioa hutsean geratzen da. Ez da erraza gurasoentzat, beraiek emateko gauza ez direna beren seme-alabei eskatzea.

Elizak bezalaxe familiak ere, ebanjelizatu nahi badu, ebanjelizatua izan behar du etengabe. Bestalde, hezieraren erantzukizuna egokiera ora izan daiteke, gurasoak beren egoera erlijiosoaz kontura daitezen; eta dei larria gerta daiteke beraientzat ebanjelizatuak izatera.

- ***Famili bizitzaren bokazio-zentzua***

90. Familiak, fededun-jarreraz eta fedearen argira eratutako bizitza-asmo baten barruan bizitzeko etengabeko deia sumatzen duen neurrian, jartzen da bera ebanjelizatua izateko bidean. Horrela famili bizitza osoak famili elkarte guztia eta bere kideetako bakoitza ukitzen dituen bokazio-zentzua hartzen du. Ezkontzara Jainkoak deitu dituen senar-emazteek Haren deia entzuten jarraitzen dute ezkon bizitzan ere, eguneroko gertaera, arazo, zailtasun eta pozak direla medio. Gurasoek beren gogoz eta erantzukizunez bizitzara ekarri dituzten seme-alabek ere Jainko horren beraren dei funtsezkoaren jabe dira. Beraiek dira dei hori entzuten saiatu behar dutenak, beren itxaropena eta uste ona biziaren eta maitasunaren Jainkoarengan jarritz.

Gure garaiotan, Jainkoa galtzeak edota urrutiratzeak ezeri zentzurik ez aurkitzea ekarri du, eta hortik halako tristura eta funtsik ezaren giro iluna sumatzen da; egoera honetan, familia kristauak zerbitzu handi bat eskaini behar diote ebanjelizatzeari. Testigantza egin dezakete, Jainkoaren esaneko izan nahi dutela, sustraitik, Haren deia entzuna dutelako, maitasunean giza eta kristau-elkartearen zerbitzuan bizitzera eta, azken batean, norberaren bokazioari jarraituz bizi osoa lortzera. Horregatik, hain zuzen, Apaizgorako edota bizitza erlijiosorako bokazioak ez du famili proiektutik kanpo geratu behar, zerbait arrotza balitz bezala. Jainkoak, eskuarki, bere deia aintzakotzat hartua eta behar bezala estimatua izan den familietako seme-alabei egiten die dei.

Familia kristaua, otoitz egiten duen elkarte

91. Bere bizitza-proiektuaren bokazio-alderdia aurkitu duen familiak leku egiten dio otoitzari. Bokazioa bizitzari elkarrizketa-zentzua ematen dion deia da. Fededunarengan elkarrizketa hori otoitz bihurtzen da. Familia, bizi eta maitasun-elkarte izanik, otoitz egiten duen eta elkarrekin otoitz egiten duen elkarte egiten da. Elkartasunean bizitzearen beste azalpen bat da familiako otoitza; eta batasunean irauten eta batasun hori sendotzen laguntzen duen indar gertatzen da otoitza.

• *Elkarrekin otoitz egiten duten senar-emazte*

92. «Jainkoaren aurrean» ezkondu ziren senar-emazteek beharrezko dituzte denboraldi egokiak beren artean komunikatzeko Jainko horren beraren aurrean. Senar-emazteek Ezkontzako sakramentua hartu zutenean bezala, Jainkoak bere maitasunaren dohaina eskaintzen jarraitzen du. Ezkontzaren sustraian bizitza elkartasun osoan eramateko asmoa egonik, ez luke zentzurik izango, otoitzaren kristau-esperientzia norberaren isiltasunean bizitzeak, elkarrekin komunikatu gabe. Jainkoari zintzotasunez eta zinez bere egia aurkezten dionak, elkarren arteko komunikaziogai bihurtuko du egia hori otoitz egiten duten senar-emazteen artean.

Senar-emazteek beren buruei galdetu beharko liekete, gaurko gizartean azkarrak eta axalekoak izan ohi diren harremanek ez ote duten beren eragina elkarren arteko harremanetan ere, desio luketen barre-batasuna zailduz. Jainkoaren aurrean elkarturik egotea ere eta Berarekin harremanak izatea bide egokia izan daiteke beren arteko komunikazioa sakontzeko.

• *Baita seme-alabekin ere*

93. Familiak berezkoa duen bizitza-batasunak ez du senar-emazteen otoitzean bakarrik nabarmendu behar. Seme-alabek ere parte hartu eta eragile izan behar dute, elkarturik otoitz egiten duen famili elkartean. Beharbada ez gara ondo konturatzen, Jesusen hitz hauek duten esanahi eta edukiaz, familian egindako otoitzari dagokionez: «Bi edo hiru lagun nire izenean bildurik dauden batzarreran, han nago Ni haien erdian» (Mt 18,20).

Badakigu hori ez dela helburu erraza. Senar-emazteek erlijio eta otoitz-esperientziarik ez izatea ez da zailtasun txikiena. Askotan gertatzen da, senar-

emazteek ez dutela beren fede-bizitza sentiberatasun berdinez bizi ohi. Kontu izan behar da, gainera, seme-alabek, fedearen adierazpen garbia izan behar lukeen familiako otoitzean, agintekeriaz ezarritako zerbait ikus ez dezaten. Baina, onar al daiteke, arrazoi horiengatik, familiako batasun-proiektuaren alderdi nagusi izan behar lukeena bazterrera uztea? Familiak ez al du beharrezko, erlijio-ezaugarri eta adierazpenak nabaritzea, hain zuzen, sekulartasun-giro hotz eta itxian sartu nahi gaituela dirudien gizarte honen erdian?

- ***Bizitza kontuan izanik***

94. Familian egindako otoitzak «familiaren bizitza bera du jatorrizko bere eduki, era guztietako gorabeheretan Jainkoaren bokazio bezala ulertzen den, eta Haren deiari emandako erantzun bezala gauzatzen den famili bizitza» (*Familiaris consortio* entziklika, 59. zenb.). Otoitz horretan aurkitu behar dute leku, bai eguneroko bizitza mamitzen duten ohiko esperientziek, bai famili historiararen sarea egiten duten gertaera, egoera eta oroipenek. Izango dira uneak, familiako kideei dagozkien erabaki garrantzitsuak hartu beharko direnekoak. Kide horiek elkarri zor dioten leialtasun eta zintzotasunak ezagut ditzakete denboraldi ilun eta zailak, eta agian luzaro. Horrelakoetan, otoitzak Jainkoaren laguntza hurbilerako bidea zabaltzen du, Bera loturik dagoelako maitasunez senar-emazteekin hauen bizitza-proiektua egintzara eramateko.

- ***Fedean hesitzen duen otoitza***

95. Gurasoek beren seme-alabei eman behar dieten kristau-hezieran, garrantzi handiko alderdia da otoitz egitea. Seme-alabei Jainkoaren misterioa ezagutzen laguntzeko eta misterio horretan sarrarazteko, otoitz xumea izan daiteke biderik onena, haien hazkuntza-prozesuko une bakoitzerako egokia dena. Otoitzak bide ematen du, Jainkoari maitekiro loturik eta Harengan uste on osoa izanez bizitzeko, gurasoekin izan duten bizitza-esperientziaren antzera. Familian egindako otoitza berezko bide gertatzen da, beraz, etorkizun erlijiosoa modu erabakiorrean baldintzatuko duen erlijio-esnaera errazteko. Lehen esperientzia hauek oinarri harturik, fededun-nortasuna eratu ahal izango da gero; horiek gabe, ordea, zailago izango da.

Egia da hizkuntza erlijiosoa zailagoa gertatzen dela gaur egun, hain urrutikoak ez diren beste garaietan baino; batez ere, otoitza barrutik eta benetan bizi den zerbait izatea nahi badugu, eta ez buruz ikasi eta ezpainez esandako otoitz-sorta hutsa. Hala ere, egia izango da beti, otoitz egiten dakitenak bakarrik izango direla gai otoitz egiten erakusteko. Agian helduok ere ikasi beharra daukagu hori.

- ***Kristau-elkartearen liturgi otoitzean parte hartzea***

96. Liturgi otoitza da kristauon otoitz-erarik nobleena eta bikainena. Otoitz hori da era berezian Elizaren otoitza, eta gainerako otoitz-era pribatu nahiz publiko guztiek horretara –batez ere, Eukaristiara– zuzenduak egon behar dute eta helburu horretarako bide izan behar dute. Liturgi otoitzerako prestaera da familiako otoitza. Gainera kristau-elkartearen liturgi otoitzean eta ospakizunean parte hartzean senti daiteke eta adieraz dezake hobekien familiak, hau da, «etxeke Eliza» txikiak, Elizako kristau-elkarte handiaren atal bizi dela.

Horregatik, «etxeko Elizan egiten den otoitzaren helburu garrantzitsuetako bat, seme-alabentzat Eliza osoaren otoitz berezia den liturgiarako berezko ikasbide izatea da» (*Familiaris consortio* entziklika, 61. zenb.). Horregatik da beharrezko, gurasoek kristau-sarbiderako sakramentuen prestaera-prozesuetan eta berorien ospakizunean parte hartzea.

97. Aipatu izan dugu, ospakizun hauek ekintza sozial hutsean geratzeko dagoen arriskua; izan ere, berorien eduki erlijiosoa eta bereziki kristaua festa-alderdien atzean gorderik geratu ohi da, nahiz eta festa-alderdi hauek zerikusi gutxi izan ospakizunekin eta, askotan, gehiegizkoak ere izan. Esan daiteke, bestalde, badela hor tartean ekonomi eta sozial alorraren nolabaiteko interesa ere, ospakizun hauek egiazko beren izaera eta esanahitik aldentzen dituen.

Guraso kristauok zuek izan beharko zenukete lehenengoak ospakizun hauen berezko ezaugarriak zaintzen; hauekin lotura estuan aurkitzen baita kristau-familiaren izaera ere, eta honek eraso gogorrek jasaten ditu gauza guztiak, baita sakratuenak ere, irensteko gai den gizartearen aldetik. Zenbat eta gehiago bat etorki familiako kide guztiak ospakizun hauen jatorrizko eta egiazko erlijio-zentzuarekin, orduan eta aberatsagoa izango da berorien festa-alderdia. Festak ez du ospakizuna irentsi behar.

98. Badakigu, azkenik, zer-nolako kezka eta nahigabea sortzen dituen hainbat gurasorengan, ikusteak, beren seme-alabek oso gutxi edo batere ez dutela parte hartzen liturgi ospakizunetan eta, bereziki, igandeko Eukaristian. Itxaropenezko hitz bat esan nahi diegu. Heziera arduratsu baten bidez seme-alabengan ereindako fede eta erlijiozko bizitzaren hazia ez da fruiturik gabe geratuko. Jainkoaren seme-alaba ere badira; Jainkoa hurbil dute maitasunez beren bizitzetan zehar; eta ezagutzen du, gurasoek adinbat, berorien kontzientziaren ezkutua.

Kristau-familia, gizartera zabalik dagoen maitasun-elkarte

99. Kristau-familiak, Elizak bezala, maitasun-elkarte izan behar du; baina ez du bere baitan bildua geratu behar; zabalik egon behar du gizartera eta kristau-maitasunaren eskakizun guztietara. Familian benetako maitasuna ikasi duenak, giza familia handia sortzeko eginkizun liluragarrian ere parte hartzeko deia entzungo du; eta gogora dezagun, Eliza giza familia horren sakramentuzko ezaugarri dela (*Lumen gentium*, 1. zenb.). Bai Elizan bai gizartean, familiak eginkizun du kristau-maitasunaren ezaugarri diren harreman-era sozialak bizi eta adierazteko gai izango den gune izatea.

Horrela, kristau-familia eliza santutua eta santutzailea da, ebanjelizatua eta ebanjelizatzailea. «Espirituaren lege berriaren arnasez eta gidaritzapean, eta errege-herri den Elizarekiko elkartasun estuan, Jainkoaganako eta senideenganako 'maitasun-zerbitzuan' bizitzea du eginkizun» (*Familiaris consortio* entziklika, 63. zenb.).

• *Gizadiaren gain maitasun eta konpromezu-begirada esnatzea*

100. Kristau-familiak gizarteari egiten dion lehenengo ekarpena eta oinarrizkoena zera da: teoriarik eta praxiarik jakinaraztea, gizaki guztien bokazioa dela Jain-

koaren seme-alaben familia handiko kide izatea. Familian bizi izandako harremanek esnatu behar dute gudan Jainkoa Aita dugunaren esperientzia; eta hortik iritsi behar dugu konturatzera, gizaki oro senide dugula, Jesukristoren aurpegia erakusten duen senide, batez ere pobrea eta behartsua denean. Gainditu egiten da, horrela, gure gizadian nabari den umezurtzaren tristura, denon Aitarenganako beharrezko loturarik gabe nahi baita egin giza familia.

Maitasunean gizartera zabalik dagoela, kristau-familiak beharrezko den giza eta kristau-giroa eskaini ahal izango du, pertsona bere hazkuntza-prozesuan aurkitu eta aitortzen joan dadin «egia, justizia, askatasun eta maitasunaren» baloreak, horietan oinarritu behar baitu egiaz gizalegezkoa izango den bizikidetzaren politiko-soziala. Alderantziz, familiako interesei bakar-bakarrik lotua dagoen maitasunari –interes horiek guztiz bidezkoak izanik ere–, berezkoa duen gizarte-alderdia falta zaio eta, beraz, harrak joa dago bere baitan. Kristaumaitasunaren sozial alderdiak zuzen ulertzea da sendagaia familiaren denon arteko berekoitasunarentzat, ez baita gauza bere mugak eta bere barruko interesak gainditzeko.

Familiako esperientziak berak laguntzen digu hobeto ulertzen ere eta sakonago eta benetanago sentitzen, zer adierazi nahi dugun zera esatean: kristau-elkarte osoak aitortzen duela, agerian aitortu ere, Aita-Jainkoa onartzen duen familia dela.

- ***Famili egitasmoa eta behartsuenganako maitasuna***

101. Badira senar-emazteak, beren famili bizitzako egitasmoa eratzekoan sozial solidaritzaren eta kristau-sentiberatasunaren alderdiak ahaztu nahi ez dituztenak, gaurko gizarteak berezko gauza bezala ahaztuta utzi nahi dituen era askotako behar-egoera eta bazterketa-era guztien aurrean. Senar-emazte horiek badakite, hartzen dituzten erabaki horiek beren ondorioak izango dituztela, izadiak Jainkoaren asmoen arabera beren esku jarriko dizkien seme-alabengan. Jakin dezatela, berentzat bizi eta poz betearen iturri den Ebanjelioa, berdin izango dela balore horiek aurkitzen lagunduko dieten beren seme-alabentzat ere, eta hori jakiteak ematen duen alaitasunean iraun dezatela opa diegu.

- ***Familia eta konpromezu politiko-soziala***

102. Familiak badu beste eginkizun eder bat ere: pertsonak maitatzeko era zehatza den sozial konpromezutik sortzen diren bokazio eta eginbeharrak indartzea eta beroriei iraupen ematea. Sarri askotan betetzen dute eginkizun hori. Baina egia da, baita ere, gaur egungo ingurugiro sozio-kulturean gauzatzen den era askotako konpromezu hori dela medio, hainbat urrutiratze eta konponezin gerta daitekeela familiako kideen artean, eta horiek ez dutela batere laguntzen, beharrezkoa den familiako bizikidetzaren egokia izan dadin. Sozial arazoetan sarturik egotea –batez ere, batzutan gertatzen denez, gehiegizkoa bada– familia sakabanatzeko izan daiteke. Gerta daiteke, kristaumaitasunaren alderdi pribatua eta publikoa elkarrekin ondo konpontzen zail izatea. Horrelako kasuetan beharrezko izango da, elkar ondo ulertuz, konfiantza-giroan eta komunikazio leialaren bidez, bide egokiak aurkitzen ahalegintzea, «maitasun-elkarte» bezala bizi den familiak bere nortasuna eta osotasuna gorde ditzan.

- ***Bakearen zerbitzuan***

103. Gure gizarte istilutsu honen barruan, kristau-familiak eskergaitza den eginkizuna dute: bereziki, elkarte baketu eta baketzaile izatekoa. Gizarte astintzen duten era guztietako istiluak ez dira etxetik kanpora, etxeko ataritik pasgabe, geratzen. Familiaren baitan nabariak dira gizartean bizi diren ezberdintasun, borroka eta zatiketak. Askotan baita adiskidetu beharra ere.

Famili elkartearen esperientzia bizitzea –familiako kide guztiek elkarrekin harremanak dituztela errespetuzko elkarriketaren bidez, ezberdintasunen aurrean eramanpena izanez eta guztienak diren baloreetan elkartzen ahaleginduz–, edota maitasunaren balore nagusiari uko ez egitea ezta beste interesen mende jartzea ere, eta bake-esperientzia horren eragina bizikidetzatza politiko eta sozialera zabaltzen ahalegintzea, hori guztia familiak bakearen arazoaren alde eskain dezaketen ekarpen eraginkorra da.

Izango da, agian, pentsatzen duenik, familien jokabide hori, batez ere gazteei dagokienez, galga edo frenua jartzeko modua dela, zenbait politiko-sozial antolamendu eta taldek horiengandik espero zezaketen eta nahiko luketen «ekintza eraginkorrari». Hala ere, galdera egin daiteke, talde hauek bilatzen duten helburua ez ote den, batzutan, estrategiaz antolatutako menpetasun gogorragoa, familia horiei buruz onartzen ez dena baino.

- ***Eliz zerbitzuaren konpromezua***

104. Kristau-elkartea bera ere leku egokia da maitasuna eta konpromezua eraginkorki bizi ahal izateko. Kristau-elkartek gero eta gehiago du beharrezko sekularren parte hartzea eta berauen ihardute gutxi-asko iraunkorra edo etengabea. Bataioan eta ezkontzan sustraitutako «etxeko Eliza» direnez, kristau-familiak lur egokia dira, ebanjelizatze-ekintza indartzeko Elizak beharrezko dituen zerbitzuak egingo dituzten pertsonak familia horietatik atera daitezen.

Elizan zerbitzu hori egin nahi duten kristauei bideak zabaldu, lagundu eta eustea, familiak egingo duen lana da, kristau eta eliz maitasunez egin ere. Ikuspegi horretatik hobeto uler daiteke, bizitza osorako hartzen diren apaiz-ministeritzarako edota erlijioso-bizitzarako eskainitako bizitzek duten balio guztia.

IV.- FAMILIENTZAKO ZERBITZU PASTORALA

105. Familiari buruzko kristau-ikuspegia aurkeztu dizuegu, eta famili proiektu kristaua aurrera eramatea eskaini dizuegu lantzat sinestedunei. Lan horretan zuei laguntzea da orain dugun asmoa. Eta horretarako, familiarentzako zerbitzu pastoralak sustatu eta bultzatu nahi genuke lekuko geure Elizetan. Geure ardura pastoralak dugu zuei, kristau-elkartetik bertatik, famili proiektu kristaua aurrera eraman eta garatzeko gai egin eta bultzatuko zaituzten baliabideak eskaintzea.

Familiaren egoerarekiko arreta, gure kristau-elkarteen pastoraltza ebanjelizatzailean

106. Ebanjelizatzea, federik ezak jotako egunotan izeneko Pastoral Idazkian «indar guztiak ebanjelizatzeari begiratzen dion pastoralgintzan biltzera» dei egiten genien kristau-elkarteei. Orain, dei horren barnean, honako honetara gonbidatzen zaituztegu: geure ebanjelizatze-zerbitzua eskaintzen diegun horien famili egoera kontuan izatera.

Paulo VI.a Aita Santuak zioenez, «ebanjelizatzeak hau esan nahi du: Berri Ona gizadiko bizi-giro guztietara eramatea eta, beraren eraginez, gizadi osoa eraldatzea, eraberritzea, barne-barnetik; [...] Ebanjelioaren indarrez, gizadiak epaitzeko irizpideak, balore erabakiorrak, interes-guneak, pentsamendu-hariak, inspirazio-iturriak eta bizitza-ereduak eraldatzea» (*Evangelii nuntiandi*, 18 eta 19. zenb.).

• Familia, ebanjelizatzeako esparru berezi

107. Ebanjelizatze-eginkizuna betetzeko garrantzi handiko esparru ikusten du Elizak familia. Familia da belaunaldi batetik bestera kultura eskualdatzeko eragilerik garrantzitsuenak, eta eskualdatze horretan tartean egon behar dute bizitzari buruzko ikuspegi erlijiosoak eta balore ebanjelikoak.

Ez dago egitura edo talde sozialik, Berri Ona onartu duen familiak bezain eragin barnekoa eta sakona izan dezakeenik, bere kideen bidez. Hori dela eta, kristau-elkarrekin beren pastoral iharduera antolatzean kontuan izan beharko dute hartzaileen famili egoera.

Haurrak, gaztetxoak, gazteak, helduak eta zaharrak senitarteko dira, era batera nahiz bestera. Berauen nortasunaren alderdi garrantzitsua dira guraso eta seme-alaben artean, anai-arreben artean, senar-emazteen artean eta ahai-deen artean bizi dituzten harremanak. Pastoral iharduera guztietan, beraz, kontuan izatekoa da nolakoa den hartzaile bakoitzak eta denek bizi duten errealitatea. Predikazioa, sinesmena eta sakramentuen ospakuntza, katekesia, gaixoe-kiko ardura, elkarte-bizitza eta Elizak pertsona bakoitzari eskaintzen dion karitate-zerbitzua antolatzean, ezin ahaztu pertsonen bizitzan familiak duen garrantzia. Eta inolako famili harremanak ez dutenei pastoral zerbitzua eskaintzean ere, kontuan izan beharko da hori, halako hutsunea betetzeko.

«Pertsona oroien eskubide eta betebeharrei buruz eta familiari buruz agi-riko mezua, egoera desberdinetara egokitua eta etengabe eguneratua, darama ebanjelizatzeak; familiarik gabe zail baita norberaren garapena» (*Evangelii nuntiandi*, 29. zenb.). Horregatik, gure pastoraltza osoak kontuan izan behar du adin bateko nahiz besteko pertsonen famili egoera.

- ***Ezkontzari buruzko pastoraltza***

108. Elizaren pastoraltza orokorrean, pertsonen bizitzan familiaren alderdiak duen eraginari eskaintako arreta, garrantzitsua izanik ere, ez da nahikoa besterik gabe. Gure kristau-elkarteek zerbitzu bereziak eskaini behar dizkiete fami- liei, bai Ezkontzari buruz bai familiari berari buruz.

Kristau-familiaren sorrera eta oinarria ezkontza delarik, garrantzi handia du ezkon lotura hartuko duten ezkongaien prestakuntza antolatzeak, baita elka- rrekin egingo duten bizitzako une bakoitzean ezkonduer lagun egiteak ere.

Ezkontza aurreko pastoraltza

- ***Ezkontza aurreko prestakuntzaren beharra***

109. Lan garrantzitsua dute parroki elkarteek, Elizaz ezkontzeko asmotan diren ezkongaiak onartu eta prestatzea.

Ezkon loturagatik senarra eta emaztearen artean sortuko den erlazioaren garrantzia ikusirik, beharrezkoa da aurrez heziketa egokia eskaintzea, elkarrekin egingo duten hitzarmena bizi ahal izan dezaten.

Etenezineko leialtasun-loturak zigilatua izango den bizikidetzarako proiektuak zera eskatzen du: ezkontide bakoitzak giza heldutasuna izatea, elkar ongi ezagutzea eta elkarrekin bizi behar izango duten errealitatea zein den sakon ja- katea. Eta ezin da uste izan, heldutasun eta elkar ezagutze hori gauza jakina de- nik edota bat-batean lor daitekeenik. Gainera, kristau-ezkontza sakramentu de- nez, ezkontideek fede bizia izan behar dute, elkar maitatuz eta elkarri emanak biziz, Jainkoaren maitasuna adierazi ahal izan dezaten.

- ***Prestakuntzaren edukia***

110. Haur-katekesian eta gazte-pastoraltzan nolabait hasi beharrezkoa den ez- kon prestaketa urrunekoaz gainera, beharrezkoa da hurbileko prestaketa be- rezia ere. Eskaini beharra die hori kristau-elkartean ezkongaei.

Prestaketa horretan kontuan izatekoak dira ezkon bizitzari, ezkontideen arteko erlazio estuari eta aita eta ama izateari dagozkien honako alderdi hauek: giza eta sozial alderdiak, juridiko eta kultural alderdiak. Baina, oroz gain, ezkon- gaien fedea eguneratzeko eta aberasteko baliabideak behar dira eskaini. Bere maitasun, bere ezkon lotura eta geroan egingo duten familiaren errealitatea fe- dearen argitan eta Jainkoaren maitasunaren indarrez aurkitzen lagundu behar dio prestaketak bikoteari, hala aitortuko baitute Ezkontzako sakramentua ospa- tzean.

Halako prestaketa ezin da denbora laburrean lortu. Zabala eta sakona izan behar du ezkongaei eskainiko zaien heziketak, kristau-helduerara iristeko bide izan dezaten. Horrela, ezkon bizitzak ekarriko dien egoera berria nolakoa den argiago jakin ahal izango dute eta erantzukizunez berenganatuko.

- ***Bakoitzari harrera ongi eta arretaz egin***

111. Ezkongaei harrera egitean eta heziketa eskaintzean, kontuan izan behar da Elizaz ezkontzea eskatzen dutenek motibazio desberdinak eta fede-egoera desberdinak izango dituztela. Harrera bihozkorra egitea, bakoitzarekin erlazioa eta aurre-iritzirik gabeko elkarrizketa irekia izatea da lehenbiziko pausoa. Ibilbidea ezin da denentzat berdina izan, eta ezin ditu denak fede-maila berera edota giza heldutasun-maila berera eraman.

Sakramentua egiaz ospatu ahal izateko, ezkontzeak duen esanahi transzendentala ulertzeko adinako fede behar dute ezkongaiak. Elkar maitatzeko hartuko duten konpromezua Jainkoak nolako dohainez aberasten duen jakin beharra dute nolabait. Horretarako, heziketa-lanean bateratu egin beharko dira, bai ezkongai bakoitzarekiko arreta bai hauek talde-ihardunetan esku hartzea.

Ezkontza-sakramentuaren ospaketa liturgikoa baldintzatua dago gure egun hauetan, beraren egiazko izatea desitxuratzen eta estaltzen duen zenbait elementu sozial dela eta. Ezkongaien eta beraien ahaideen laguntzaz, kristau-ospaketaren ezaugarriak ahal bezain benetakoak eta argiak izan daitezten egin beharra dago.

- ***Senar-emazteen lankidetzaz***

112. Gauza jakina da, ezkontza aurreko harrera egitean eta heziketa eskaintzean, ezinbesteko egitekoa dutela, horretarako bereziki deituak izan behar duten parroki elkarteko senar-emazte batzuk. Aurrez prestatuak eta bere bizitza-esperientziatik abiatuak, beren argibideak eta testigantzak eskaini diezazkiekete ezkongaei.

Honelako zerbitzua parroki esparruan antolatu ezin denean, eskualdeko parrokiaren artean antolatzeko bidea egin behar da.

Ezkonduen jarraipen egitea

113. Senar-emazteen heziketa ez da ezkontza ospatzean burutzen; etengabeko lana izan behar du. Epez epe maitasunean hazi egin behar dute, famili bizitzak izan ohi dituen egoera desberdinen erdian.

Senar-emazte kristauak elkar ikusteko eta elkarri laguntzeko gune bereziak izan ditzaten saiatu behar du parroki elkarteak. Familien bereizkuntza eta egoera desberdinen arabera, talderen batzuk sortuz gero, senar-emazteek izango lukete beren esperientzia eta kezkek elkarri non adierazi, Ebanjelioaren argitan non begiratu, eta famili bizitzan dituzten erantzukizunak eramateko eragina eta argibidea non aurkitu.

Ezkondu-taldeetan Ezkontzako sakramentuari dagokion gogo-bizitza edo espiritubidea landu behar dute; horrela, transzendentzi zentzuz bete dezakete senar-emazteen arteko eguneroko erlazioetan eta famili bizitzan ageri den giza errealitatea.

- ***Ezkonduen talde eta mugimenduek***

114. Halako taldeen lanak eta egingo duten gogoetak lagun diezaioke parrokiari bere pastoraltzan familien egoera kontuan hartzen. Halako taldeetan egunean eguneko gai interesgarriak planteatzen ikusirik, zenbait gai sakonago aztertu beharra ager daiteke eta, horretarako, ezkontzaz eta familiaz ihardunaldiak nahiz mintzaldiak antolatu beharra.

Ezkondu eta famili mugimenduek eraginiko taldeak parroki elkarteetan antolatzea oso on izan daiteke ezkondui eskaini beharreko lagun-egite pastoralak bizkortzeko eta bideratzeko.

Familian fedea bizi eta fedean hezi dezaten laguntza

115. Ordeztezina da beren seme-alabak fedean hesitzeko gurasoek duten erantzukizuna. Ez da gainerako heziketa-lanetik berezia dagoen zerbait, heziketan sartua behar duen zerbait baizik. Giza heziketa bezala, fede-heziketa ere ezin da bat-bateko asmamenaren edo inprobisazioaren baitan utzi. Bere egitasmo edo proiektua behar du, eta heziketa hori egiteko bide eta unerik egokienak bilatu behar dira.

- ***Nork bere fedea besteei eskualdatzea***

116. Beren seme-alaben aurrean gurasoek ez dira irakasle edota katekista, guraso baizik. Hauen irakaskintza-erak ez ditu eskemak eta liburuak erabiltzen. Beren balore eta sineskerak, beren uste sendo eta jarrerak behar dizkiete seme-alabei azaldu. Famili bizitzako harremanek eskaintzen dituzten egokierez baliatuz egin behar dute hori, ongi pentsaturik eta agerian; eta jokaera fedearekin bat eramanez ematen den testigantza isilaz.

Gurasoen lan honek garrantzi berezia du haurren «esnaera erlijiosoan». Seme-alaba txikiak begiak irekitzen eta inguruan duten mundua ikusten hastean, berengandik hurbil dagoen Jainkoa aurkitu behar dute. Gurasoak dira, eta ez beste inor, fede-heziketarako oinarrizko zerbitzu hau egin dezaketenak. Jainkoaren izena eta aurpegi onbera, Jainkoarekiko eskerrona eta berari laguntza eskatu beharra, gurasoengandik seme-alabengana berez eskualdatzen da sines-tedunaren bizitzan.

Egokiera aparta duzue gurasook zeuen seme-alabei esperientzia hau eskualdatzeko. Benetan aberasgarria izango dute beren nortasunaren hezieran. Gure aldetik, adore eman nahi dizuegu, egokiera hori gal ez dezazuen axolagabekeriaz edo zabarkeriaz.

- ***Gurasoek parrokiako katekesian parte hartzea***

117. Adina iritsi zaielako, seme-alabak kristau-elkarteak antolatzen duen katekesian eta ikastetxeko erlijio-heziketan sartu izan arren, gurasoek ezin dute beren erantzukizuna beste baten esku utzi. Epealdi berri horien garapenean ere beren eginkizuna bete beharra dute gurasoek.

Seme-alaben katekesi ibilbidearen berri emateko dei egin ohi die parrokiak gurasoei: katekesiaren helburu edo edukien nondik norakoa azaltzeko, erabiltzen dituzten pedagogi metodoen berri emateko, ospakizunetan esku hartzera gonbidatzeko eta beren formazioa eguneratzeko egokiera eskaintzeko, horrela gurasoek beraiek osatu ahal izan dezaten elkarrekin jarritako katekisten lana.

Parroki elkarteko katekistek gurasoekin maiz erlazionatzeko modua bilatu behar dute, haurren eta gaztetxoek katekesi-ibilbidean bereziki, batzuen lanak besteena osatu behar baitu.

Garrantzi berezikoa da, seme-alabak sakramentuak ospatzeko prestatzean, eta ospatzean berean ere, gurasoek duten egitekoa. Gertakari horiek esanahi berezia dute haurrari kristau-elkartean sartzeko bidean laguntzekoan eta familiaren esperientzia erlijiosoa bizitzekoan. Horregatik saiatu behar dute gurasoek, halako ospakizunak itxurazko jai sozial huts bihurtu ez daitezela. Saiatu beharrezan gara, denon artean, ospaketa horietan sinpletasuna eta xumetasuna berreskuratzen eta parroki elkartearen esparruan alaiki bizitzen.

- ***Seme-alabak gurasoen «hezitzaile»***

118. Kristau-elkarteak antolatzen dituen katekesi-ibilbideetan esku hartzeak sendotu egiten du seme-alabengan ezarian-ezarian kristau-heldutasuna. Eta, horregatik, beren gurasoen kristau-konpromezua zertan den galdegin dezakete.

Gaztetxoaroan eta gaztaroan gehienbat, seme-alabek ikus dezakete zeinen ederra den bizitzarako Ebanjelioaren arabera eginiko kristau-proiektua. Orduan, kritikoak izango dira gurasoen jarrera eta jokaeren aurrean.

Gaur egungo gazte kristauak oso sentibera dira gizarteko behartsuen eta baztertuen egoeraren aurrean, edota Hirugarren Munduko egoeraren eta justiziaren eskakizunen aurrean. Eta horrek eraman ditzake gurasoei arazo horietan galderak egitera, garai batean hartu zuten heziketarik, gizarteko arazoetan hain konprometitua ez dagoen fedea bizi dutela ikusten baitute gurasoengan.

Familia barruan senide guztiek dute elkar hesitzen eta eragiten beren arteko harreman guztietan. Gazteenek ere asko irakats diezaiekete zaharrenei, baita erlijio eta fede-kontuan ere. «Gurasoek beren seme-alabei Ebanjelioa erakutsi ezezik, hartu ere egin dezakete seme-alabengandik Ebanjelioa sakon bizitua» (*Evangelii nuntiandi*, 71. zenb.).

- ***Otoitza familian***

119. Sinesmena familian bizitzeko eta aipatzen ari garen heziketa-ibilbidean garrantzi handia du otoitzak. Txiki-txikitatik irakatsi behar liekete gurasoek be-

ren seme-alabei Jainkoarekin hitz egiten. Izan ohi da aukerarik eta une egokirik famili bizitzan haurrari era onean otoitz egiten irakasteko: Jainkoari eskerrak emanez edota laguntza eskatuz.

Familian eguneroko bizitzan gertatzen direnak, pozaldiak eta nahigabealdiak, haurrekin otoitz egiteko gaiak izan behar lukete. Otoitz egiteko formulak ezezik, Jainkoarekiko usteon-jarrera eta Berarekin harremanetan jarri nahia irakatsi behar diete gurasoek seme-alabei.

Familia biltzen den uneetan horrela otoitz egitea oso barneraino sar daiteke bakoitzarengan; seme-alabak hazi ahala ere iraun dezake berez otoitz egiteko joerak eta senitarteko lotura estuen azalpen gerta daiteke.

- ***Kristau-elkartearen laguntza***

120. Gurasoek espero dezakete laguntza eta argibiderik kristau-elkartearengandik beren hezitzaile-eginkizuna bete ahal izateko. Eskubide dute horretarako.

Dei egiten diegu parrokiei, halako erantzukizunaz gurasoak jabearaz ditzaten, eginkizun hori betetzeko presta ditzaten eta beren etxean egiteko garrantzitsu hori betetzeko behar diren baliabideak eskain diezazkieten.

Oso zail gertatzen zaio lan hori guraso askori. Beren seme-alabekin harremanak izateko astirik ezaz eta haurrak haurtzaindegira agudo eramateaz gainera, aldaketa kulturalak barne-oreka eta armoniarik gabe utzi du guraso asko, eta barne-oreka hori beharrezkoa da seme-alaba txikiei bizitzako oinarri erlijiosoak eskaintzen asmatzeko. Laguntza behar dute gurasoek beren fedeko egia nagusiak beren buruei esan ahal izateko; eta mintzaira egokia aurkitu behar dute fedeko egia horiek familian beren seme-alabei eskualdatzeko.

Iradokizun zehatzak eta langai sinpleak eskaini behar genizkieke gurasoei, beren etxean irudi erlijiosoak egin ditzaten, familian otoitz-uneak antola ditzaten eta gogoeta-gaiak presta ditzaten. Era berean, egokierak eman beharko lituzke parroki elkarteak, familia osoak aukera izan dezan, zenbait ospakizun prestatzeko eta ospatzeko eta ospaketara elkarturik joan ahal izateko.

Seme-alaben heziera osoaren erantzukizun elkar banatua

- ***Gurasoen eskubidea eta erantzukizuna***

121. Garai batean seme-alaben heziera, berauen nortasunaren oinarritzko alderdietan, era osoagoan egin ohi zen familia zabalaren baitan; alderdi asko hartzen zituen gizarteratze-prozesua zen. Gaur, ordea, bere gunera urritutako familia «nuklearraren» eta eskola eta beste heziera-guneen artean banatzen da langintza hori.

Heziera oso horretan parte hartzen duten guztiak gurasoen izenean ari dina egiaz, eta ezinbestean elkar banatu egiten da haiek duten erantzukizuna. Horregatik, kristau-ikastetxeak, astialdiko lagunarteek eta hauen antzekoek tar-

teko izan behar dituzte gurasoak heziera-helburuak finkatzekoan, ekintzak bideratzekoan eta ekintza horien ebaluaketa egitekoan.

- ***Gurasoak heziera-elkartean***

122. Guraso, seme-alaba eta hezitzaileek osatzen duten heziera-elkartea horiek guztiek parte hartuz behar da eraiki. Honek, ordea, harreman pertsonalaren dinamika eskatzen du, eta hori ez da Guraso-elkartek izate hutsarekin besterik gabe lortzen.

Izugarrizko garrantzia du, gurasoek beren seme-alaben eskolaz kanpoko eta astialdiko ekintzek ematen dizkieten egokieretan parte hartzeak. Irekiagoa den familia-era bat bizitzako egokiera aurki dezakete; gainera, beren laguntza eskain diezaiekete, beren seme-alaben heziera osoaren erantzukizunaren aurrean hain sentibera ez diren beste familiei.

Irakaskuntza-munduan edota haurtzaro edo gaztaroko beste heziera-ekin-tzetan harturik dauden ikastetxe eta kristauek, batez ere erlijiosoenak, indartu egin behar dituzte gurasoen parte hartzea eta langintza, elkar banatutako erantzukizunaren benetako zentzuz indartu ere, eginkizun hori betetzekoan.

- ***Guraso-eskolak***

123. Interes handiko zerbitzu bat «Guraso-eskola» deituak sustatzea da; eskola hauek egokiera ematen dute seme-alaben heziera-erantzukizuna elkar harturik eramateko, kontuan izanik familiak, ikastetxeak eta parrokiak badituztela beren berezitasunak eta elkarren osagarri duela. Leku egoki izan daitezke gainera eskola hauek, heziera osoaren alderdi garrantzitsu den seme-alaben maitasun eta sexu-hezierari dagokionez gurasoen eta beste hezitzaileen arteko elkarlana prestatu, bideratu eta sustatzeko.

Gauza ona izango litzateke, aipatu eskolak izatearren ikastetxe kristauen eta parrokiaren arteko elkarlana lortzea.

Familielikiko solidaritza beraien arazo eta beharretan

124. Era guztietako aldarreak pasa behar izaten ditu familia bakoitzak bere historia berezian. Izaten dira pozaldiak eta nahigabeak, itxaropenak eta etsipenak; batzutan oso sakonak gainera, eta gehienetan isiltasunean eta bakardadean jasan beharrekoak.

Bidezkoa den lotsak gorde egiten die kanpokoei familiaren barnetasuna, eta aldarte zailetan bereziki ezkutuan geratzen da. Horrelako egoeran errespetu handiz jokatu behar da, baina behin ere ez axolagabekeriaz edota iheskeriaz.

- ***Sufritzen dauden familienganako hurbiltasuna***

125. Kristau-elkartek bereziki adi egon behar du, famili bizitzan oreka hautsi edo zailtasunak sortzen dituzten gertaera eta egoerez konturatzeko. Gaixotasuna eta heriotza, lanik eza, askatasuna galtzea, eskolako porrota, eskuarterik eza eta

horien antzeko egoerek eragin izugarria dute famili bizitzan. Kristauok prest eta hurbil egon behar dugu, errespetuz eta samurtasunez, horrelako egoerak sortzen direnean.

Badira, bestalde, bereziki minbera diren famili bizitzako beste egoerak, familia barruko harremanak zuzenean ukitzen dituztenak: bakardadea, komunikaziorik eza, tratu txarrak, utzi eta aldegitea, dibortzioz apartatzea... Horrelako kasuetan, kristau-elkarteak beharrezkoa eta zuzeneko den lehen laguntza eta inolako baldintzarik gabeko harrera eskaini behar dizkie egoera horiek jasaten ari diren pertsoneri. Eta kasu askotan, arazoaren eta egoeraren arabera, bereziki prestatuak diren pertsona edo etxeen laguntza ere bilatu beharko du.

- ***Pertsona adintsuei eta alargunei laguntzea***

126. Arreta berezia zor zaie pertsona adintsuei eta berauen famili inguruari. Bizitza gero eta gehiago luzatzen joatearekin asko ugarritu da gure gizartean zaharren taldea, eta horrek bakardade eta babesfalta-egoerak ekarri ditu berekin. Zahar askok, gogoz eta ahalegin handiz familia sortu eta aurrera atera ondoren, halako nahaspila nabaritzen du gaurko gizartean, famili eta gizarte-bizitzako gaurko erak arin baino arinago aldatzen direla ikustean.

Kristau-elkarateek adintsuei eman behar dien laguntzak ez die berorien osasunari eta bizitzako baliabide materialei bakarrik begiratu behar; taldeak eta harreman pertsonalak sortzeko ahaleginak egin behar ditu, adintsuek izan dezaketen bakardadea desegiteko. Horrela laguntza eskainiko diete, beren inguruan eta famili bizitzan azaltzen ari diren egoera berriak hobeto ulertu eta jaso ditzaten, bizitzari buruzko beren ikuspegian.

127. Egoera bereziki mingarria, familiako egitasmoa hautsi eta seme-alaben etorkizuna arriskuan jartzen duena, senar-emazteetako bat hiltzen denean sortzen da. Bikotearen elkarriketa etena geratzen da, ezinezko egiten du aita eta amaren lan elkartua eta etxeko oreka bera ere arriskuan jartzen du. Alargun geratu denak maitasun, sexual eta guraso-bakardadea nabaritzen du. Une hauetan sufrimen handi batek hartua bizi da, eta bere ingurukoaren eta kristau-elkaratearen laguntza beharrean aurkitzen da, egoera horri adoretzu eta heldutasunez aurpegi emateko, samintasunez bada ere.

- ***Ezkontza hautsi dutenen aurrean***

128. Kristauok ez daukagu geure begiak ixterik benetan mingarria den gertaera baten aurrean: ezkontza hautsi eta dibortziatu ondoren, ezkontza zibila egin dutenen aurrean. Egoera honetara eramane dituen ibilbidean beren sufrimena jasan behar izan dute; baina, gainera, Elizak eta kristau-elkarateek ere ez ulertzearen mingostasuna nabaritzen dute. Pertsona hauetako batzuk benetako ahaleginak egin zituzten lehenengo ezkontzari eusten, edota hura hondatu ondoren ez zuten adorerik izan etorkizunari beraiek bakarrik aurpegi emateko. Badaiteke egoera berriak beharkizun moral berriak ere sortu izana.

Ezkontza berriak ezeztatu egiten du objetiboki, Jesusen erakutsiaren eta Elizaren irakaspenaren arabera ezkontzak izan behar duen askaezintasuna. Beste ezkontza batean elkartu diren dibortziatuek ez daukate Eukaristiara hur-

biltzerik, izan ere «beren bizitzako egoerak ezeztatu egiten du objetiboki, Eukaristiak adierazi eta gertaberritzen duen Kristoren eta Elizaren arteko maitasun-batasuna» (*Familiaris consortio* entziklika, 84. zenb.).

Hala ere, horrek ez du esan nahi pertsona hauek Elizatik boteak edo eskomikatuak izan direnik. Kristau-elkarteko kide izaten jarraitzen dute, eta beren egoera zail hori gizakiari eta kristauari dagokionez bizitzeko behar duten solidaritza eta harrera aurkitu behar dituzte kristau-elkartean, alde batera utzirik nolanhiko mesprezu edo baztertze-jarrera.

Alderantziz, Joan Paulo II.a Aita Santuak aholku bizia ematen die «artzainei eta fededunen elkarteei beren laguntza eskain diezaietela dibortziatuei, benetako kristau-maitasunez saia daitezela horrelakoak Elizatik apartatuak senti ez daitezten, bataiatuak direnez Elizaren bizitzan parte har dezaketelako eta hartu behar dutelako». Badute eskubide horiek ere Jainkoaren Hitza entzuteko, eukaristi batzarrean parte hartzeko, fedean eta itxaropenean irauteko eta beren seme-alabak kristauki hesitzeko behar duten laguntza eskuratzeko, eta kristau-elkartearen karitate-ekintzetan eta justiziaren aldeko ekimenetan ere parte hartzeko.

Ezkontza eta famili pastoraltzako kideak

129. Kristau guztiok eta bakoitzak izan behar dugu geure familien ebanjelizatzaile; baina familiari buruzko kristau-elkarteetako pastoral zerbitzuak horretarako bereziki bokaziodunak eta prestatuak dauden kideak behar ditu.

• *Gotzain eta apaizak*

130. Gotzain eta apaizak erabat kristau-elkarteen pastoral zerbitzura emanak gaude; baina geure gain hartu behar dugu erantzukizunez ezkontza eta familiari buruzko pastoraltza ere.

Horrek esan nahi du, gure garaiotako eta gure inguruko senar-emazte eta familiek bizi dituzten beharrak eta arazoak ikusten jakin behar dugula. Gainera jarrera leiala eta garbia eskatzen digu, ezkontza eta familiari buruzko Ebanjelioaren eskakizunak azaltzekoan eta kristau-ikuspegia ematekoan. Kristau-familiaren egitasmoa bideratzeko beharrezko diren baldintzak gizartearen aurrean zaindu eta eskatzera egiten digu dei. Eta lerro hauetan aurkezten ari garen zerbitzuak indartzera eragiten digu gure kristau-elkartean.

• *Senar-emazte kristauak*

131. Ezkontza eta familiaren pastoraltzan ordezkazinezko lekua daukate kristau laikoek, batez ere senar-emazteek. Hauek, ezkonduak izateagatik eta daukaten esperientziagatik, hurbileko senide-zerbitzua eskain dezakete, eta berauen hitz eta egintzek eragin eta laguntza handia eman diezaiokete beste askori, antzeko arazo eta egoeren aurrean.

Zerbitzu hau onartzeko ez da aski esperientzia edota borondate ona izate hutsa. Horiez gainera beharrezkoak dira fede heldua, kristau-ezkontza eta familiaren izaera eta esanahiari buruzko ikuspegi argia, eta ondo hezitako kontzien-

tzia. Gure kristau-elkarteek onartu egin behar dituzte zerbitzu honetan lan egiteko beren buruak eskaintzen dituztenak; dei egin behar diete honetarako egoiak direla ikusten dituztenei; eta behar bezala hezi behar dituzte eginkizun hori betetzeko.

Senar-emazte hauek harrera-taldeetan sarturik egon behar dute, ezkontza aurreko hezieran parte hartu eta parroketako ezkondu-taldeak indartu behar dituzte. Alor zabala, erronkaz betea eta benetan poz-iturri dena daukate, beraz, ekintzarako beren aurrean.

Ezkontza eta famili pastoraltzako kideek beharrezkoak dituzte talde-lanerako espiritua, komunikazio errazerako gaitasuna, bestearenganako harrera ona eta sentiberatasuna, sen oneko baikortasuna eta itxaropen-zentzua. Gaitasun hauek besteenganako zerbitzu egiten den konpromezuetan sartuz lantzen dira eta eskuratzen, poliki-poliki.

- ***Erlijioso-erlijiosoak***

132. Erlijioso-erlijiosoak ere hartzen dute parte famili pastoraltzan, nahiz eta berauek Erreinuagatik giza familia bat sortzeari uko egin izan. Eta pastoraltza horretan sartzen dira, ez bakarrik bizitza neurritsuago eta solidaritza gehiago duenera dei egiten dutelako, beren bizitzaz egiten duten Ebanjelioko aholkuen testigantzaz. Hezieran, senar-emazte eta familiekin dituzten harremanetan, gaxoei emandako laguntzan, edota zaharren harreran balio handiko eliz zerbitzua egiten dutelako familien alde.

Ezkontza eta famili pastoraltzaren barrutiak eta egiturak

133. Ez da orain gure asmoa, ezkontza eta famili pastoraltzaren zerbitzuak izan ditzakeen alderdi guztiak aipatzea. Ez da hall horretarako lekua. Baina gutxienean alor honetako pastoral antolamendurako zenbait argibide eskaini nahi dugu.

- ***Elizbarrutia***

134. Lekuan lekuko gure Elizetako artzain garenez, ardura berezia dugu geure gain ezkontza eta famili pastoraltzako elizbarrutietako zerbitzuetatik geure eragina emateko, alor honetan bultzada, argibide eta koordinazioaren onerako izan daitekeen guztiari. Bereziki beharrezko ikusten dugu, elizbarrutitik pastoralgileen heziera eta Familientzako Aholku Etxeko zerbitzuez arduratzea.

Lekuan lekuko gure Elizetako bakoitzak bere egitura eta egitasmoak antolatu beharko ditu, ezkontza eta famili pastoraltzan sarturik dauden laguntzailerik parte hartuz eta erantzukizunak ere berauekin elkar banatuz.

- ***Mugimenduak***

135. Bada gure artean hedapen desberdina duen zenbait mugimendu ezkontza eta familiari buruz. Balio handiko pastoral ekintza da, alor honetan berauek duten prestaera eta metodologiagatik.

Mugimendu hauen eta parrokiako pastoraltzaren arteko hurbiltasun eta elkarlan handiagoa aberasgarria izango litzateke bientzat. Badakigu mugimendu hauek zaindu beharrak dauzkatela beren nortasuna eta antolakuntza; baina begi onez ikusiko genuke, hauek beren dinamika bereziaz Lekuan lekuko gure Elizetako pastoraltza bateratuan sarturik egotea.

- ***Parrokia***

136. Parrokia izanik ezkongai, senar-emazte, gazte eta haurrentzat elkarren arteko zuzeneko komunikaziorako lekua, berori da familiari buruzko pastoral ekintzak bideratzeko lekurik aproposena ere. Parroki elkartean garrantzi handia dute ezkontza aurreko harrera eta heziera-zerbitzuek, eta baita arazoetan eta beharrea aurkitzen diren familiei eskainitako lehen laguntzak ere.

Alor honetan parrokiako pastoraltza osoa indartu eta bideratzeko garrantzi berezia du ezkontza eta familiari buruzko pastoraltzarako parroki taldeak sortzeak. Hori ezinezkoa balitz parrokia bakoitzean, gutxienean artziprestalde edo pastoral zonaldean eratu beharko litzateke.

AZKENA

137. Pastoral Idazki honek, eliztar maiteok, zuengan guztiongan gero eta arreta handiagoa sortzea nahiko genuke, hain garrantzitsua den familiaren giza eta kristau-arazo honen aurrean. Uste osoan gaude, Jesukristoren Ebanjeliora eta beronek eskaintzen dituen baloreetara bihotz zintzoz zabalik dagoen familia bere barruan eraberritua eta aberastua gertatuko dela. Horrela hobeto bete ahal izango du, guk bizi ditugun garaiotan beharrezko diren gizon-emakumeak prestatzeko bere eginkizun zoragarria, itxaropen-iturri eta mundu gizalegezkoago eta senideagoa sortze-lanean sarturik egon daitezten. Gizadi berri baten, hau da, askatasunaren eta bakearen jabe, eta Jesukristok salbatutako gizadi berriaren aldarrikapen eta testigantza izango da orduan familia.

Nazareten familiako ama izan zen Andre Mariak bere arrasa, eragina eta indarra eman diezazkiola familiari buruzko gure gogoeta eta konpromezu honi.

Iruñea eta Tuteran, Bilbo, Donostia eta Gasteiz
1995, apirilak 16
Piztuerako Pazkoa

- ✘ **Fernando**, Iruñeko Gotzainburua eta Tuterako Gotzaina
- ✘ **Koldobika M.**, Bilboko Gotzaina
- ✘ **Jose Maria**, Donostiako Gotzaina
- ✘ **Jose Maria**, Gasteizko Gotzaina